1919·2019

ARGIA

#2.664 | 2019/11/03 | 3,90 €

22 HEZKUNTZA

Premia bereziko ikasleak, murrizketen biktima

GURASOEK ELKARTEA SORTU DUTE ESKUBIDEAK BORROKATZEKO

AEB ez, Errusia da orain nagusi Ekialde Hurbilean

10 | GEOPOLITIKA

Agotzenea Ekohezkuntza Gunera bisita

12 | ELKARRIZKETA

Winnipeg itsasontzia eta haurtxoa

30 | OROIMEN HISTORIKOA

Eskuratu

2020

EGUTEGIA

DUELA 30 URTE

Gaurko egunez...

1990eko otsailaren 11n

Nelson Mandela askatu zuten Hegoafrika 27 urte preso eduki ostean. Apartheidar aurkako eta Afrikako Kongresu Nazionaleko militantea zen. Aurretik, borroka armatuan aritu zen Umkhonto we Sizwe erakundean. Kartzelatik irtet elkarrizketa eta adiskidetzea bultzatu zituen. Hegoafrikako presidente hauta zuten eta Bakearen Nobel Saria ema zioten. AEBen terroristen zerrendan zen 2008ra arte.

DUELA 40 URTE

Gaurko egunez...

1980ko maiatzaren 14an

Martin Zabaleta hernaniarrak Ev gailurra erdietsi zuen, Pasang T sherparekin batera. Lehen eusk izan zen munduko mendirik ga igotzen, euskaldun talde batek espedizioan. Gailurrean ikurrin eta nuklearren aurkako bande ETAren anagrama jarri zituzte

DUELA 35 URTE

Gaurko egunez...

1985eko uztailaren 7an

Martuteneko espetxetik ih zuten Joseba Sarrionandia Pikabea presoek, Imanol L emandako kontzertua pro bozgorailuen barruan ezk Pikabea bi urtera atxilotu baina *Sarri* kanpoan bizi i geroztik.

Gaurko egunez...

1977ako martxoaren 8an

Egin zituzten Euskal Herrian lehen aldiz M8ko deialdiak. Bilbon egin zuten mobilizaziorik jendetsuena eta 700 emakumetik gora batu ziren *Munduko emakume danen borrokarekin elkartasuna* lelopean. Hala ere, ez zen deialdi bakarra izan. Gasteizen deitua zuten manifestazioa debekatu zuten. Donostian EAM eta ADM taldeek ekimenak egin zituzten.

Historia gurea da, jendearena. Gogoratu, partekatu eta zabal ezazu egunero ahaztu behar ez den mundu zati bat. ARGIArekin egunero efemeride bat.

9€

ARGIA **AZOKA.ARGIA.EUS** **943 37 15 45**

ARGIA

2.664 zenbakia I Azaroak 3, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

17 I DAVID BOU
18 I SONIA GONZÁLEZ
19 I KOLDO ALDALUR
19 I UXUE APAOLAZA
20 I AMANCAY GAZTAÑAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

38 I DENBORAREN MAKINA
40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: AINA CLOTET
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

12 I AGOTZENEA EKOHEZKUNTZA GUNEA
Ateak zabaldu gabe ere, 1.000 pertsona inguru pasa dira jada Zubiri eta Leranotz herrien arteko bidean dagoen gune honetatik. Esteribarko bi ekintzaile gazte, Ander Magallon eta Urtzi Arrieta, dira proiektuaren sortzaileak. Reyes Ilintxeta mintzatu da beraiekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Geopolitikak zanpatu ditu kurduak: AEB ez, Errusia da orain nagusi Ekialde Hurbilean
Pello Zubiria Kamino

24 I HEZKUNTZA
Premia bereziko ikasleak asetzen ez dituen hezkuntza
Mikel Garcia Idiakez

28 I HISTORIA
Mundu Biraren V. mendeurrena ospatzeko, zeri egin behar genioke uko?
Miguel A. Jimenez

30 I 1939KO ERBESTEA
Winnipeg itsasontziaren eta haurtxoaren historia
Mauro Saravia

33 I NAZIOARTEA
"Komuna da Venezuela krisitik ateratzeko bidea"
Zigor Oleaga

36 I NAZIOARTEA
"Hezkuntza deskolonizatzen ari gara, hizkuntza landu ahal izateko"
Onintza Irureta Azkune

44 I KULTURA
Harold Bloom hil da, kanon literarioari buruzko eztabaida ez
Gorka Bereziartua Mitxelena

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Faxismoaren itzal luzea

Hego Europako faxismoaren ikur gorenetako bat –bestea italiar antifaxistek urkatu zuten duela 74 urte– lekuz aldatu dute lagun eta senideek lepoan hartuta. Frankismoaren beste arduradun nagusi batzuen albora eraman dute Francisco Franco Bahamonde. RTVE-k zuzenean eskaini du "ekitaldia", ikur, mezu, meza eta oihu faxista artean, Espainiako demokraziaren ordezkariak begira daudela. Sorgor.
Beste porrot baten irudia. 44 urtez faxismoarekiko loturak askatu ez izanaren ondorio. Faxisten omenezko gurutzeak munduko handiena izaten jarraituko du, munduan antifaxistez betetako hobi komun gehien duen lurraldean.

SANTI DONAIRE **AXIER LOPEZ**

IMAJINATZEN DUZUE HILETA-SHOW BAT HITLERREKIN, JENDEA "GORA HITLER" OIHUKA ETA POLIZIA ALEMANIARRA EZER EGIN GABE? ETA TELEBISTA ALEMANIARRA MINUTUZ MINUTUKO JARRAIPENA EGITEN, ESTATU HILETA BAILITZAN? EZ, EZTA? ATERA KONTUAK

@AnitaBotwin

"GORA FRANCO" OIHU EGITEA ADIERAZPEN ASKATASUNA DA ETA HAUTESTONTZIAK JARTZEA SEDIZIOA DA, ESPAINIA DEMOKRAZIA BAT DELAKO

@GARA_ikerbizkar

ESANGO NUKE, GOBERNUAK DESOBIRATZEA NOLA EGIN DUEN SUTSUKI DEFENDATZEN DUTENAK IZANGO DIRELA EZ DUTENAK BEHARREZKO IKUSIKO ERREPARAZIO EKONOMIKOAK EGITEA ETA ONDASUNAK DAGOKIENEI ITZULTZEA, ENBARAZU GEHIEGI EZ EGITEKO

@AntonioMaestre

GAUR FRANCOREN GORPUA ATERA DUTE MAUSOLEOTIK. PAUSO BAT BAINO EZ DA. ORAINDIK BIKTIMA ASKO DAUDE EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOAREN ZAIN. EZ DUGU ETSIKO LORTU ARTE

@SQ_2D

Greba Orokorra "lan, pentsio eta bizitza duinaren alde"

ARGIA

Sindikatuak eta eragile sozialak elkartzen dituen Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartak greba orokorrerako deia egin du. 2020ko urtarrilean izango da, bigarren hamabostaldian. Pentsio duinen aldeko borroka, kalitatezko enpleguaren aldekoa eta eskubide sozialen aldekoa uztartu nahi dituzte mobilizazio berean.

Mobilizazio agenda aurkeztu dute datozen hilabeteetarako, hiru ardatz hauekin: pentsioak, enplegua eta eskubide sozialak. Greba orokor bat egiteko deialdia ere zabaldu du. Data oraindik ez dago zehaztuta, baina 2020ko urtarrilean izango da, bigarren hamabostaldian. Urriaren 22an pentsiodunek egindako agerraldiaren ondoren dator deialdi hori: duela bi urtetik pentsio duinen defentsan astero egiten dituzten mobilizaioak indartzeko premia nabarmendu zuen pentsiodunen mugimenduak, eta dei horri erantzun dio Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, erakunde sindikal eta sozial ugari batzen dituen plataformak, mobilizazio-egutegi honekin.

Pentsioen aldeko borrokaz gain, urtarrileko grebak beste bi zutabe izango ditu: kalitatezko enplegua eta eskubide sozialak.

Plataforman parte hartzen du ELA sindikatuak eta haren idazkari nagusi Mitxel Lakuntzak azaldu duenez, "pentsiodunak egoera larrian daude; urteak daramatzate kalean protesta egiten, euren egoera salatzen. Lan eta bizi baldintzak okertzen ari diren testuinguru batean gaude, begi-bistakoa da. Eta ditugun eskubide sozialak ez dira nahikoak; pobreziaren inguruko datuek agerian uzten dute gurean gero eta lagun gehiago dagoela pobrezian".

LAB sindikatutik, Garbiñe Aranburu idazkari nagusiak adierazi du "Euskal Herrian ematen ari den mobilizazio soziala oso garrantzitsua" dela. "Iritsi da momentua langile klaseak sustatutako borroka horiek guztiak artikulatzeko, borroka horiei guztiei bultzada berria emateko. Horregatik gaude hemen, dinamika mobilizatzaile bat aurkezteko, greba orokor bat mugarri izango duena".

Grebaren aurretik beste hainbat ekintza aurreikusi dituzte: urriaren 30ean, Eusko Legebiltzarraren aurrean eskatuko dute EAJ eta PSEk Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta murrizteko aurkeztu duten lege proposamena bertan behera utz dezatela; azaroaren 16an, pentsiodunen mugimenduak deitu dituen protestetan izango dira; eta abenduan mobilizazioak egingo dituzte, lan, pentsio eta bizitza duinaren alde. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

10 iraultza modernoak

ARITZ GALARRAGA

Hamar zutabe pasa behar izan dira, hamar, zutabe hauei izena eman diena, Stefan Zweig, zutabe hauetan aipatzeko –eta ziur naiz ez dela azken aldia izango–. Zweig, esango nuke, ez dago aurkeztu beharrik; soilik gogorarazi euskaraz irakurri ahal dizkiogula hiru eleberri: *Xake nobela* (Alberdania, 1999), *Emakume ezezagun baten gutuna* (Igela, 2005) eta *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* (Igela, 2007). Baina, fikziozko lanek baino, haren memoriek eduki naute azken egunotan katigatuta, *Die Welt von Gestern* izenekoak, atzoko mundua.

Eta bertan irakurritakoen artean, gauza bat eduki dut azken egunotan bueltaka. 1934ko otsailean lehertu zen Austriako gerra zibila, motza, lau egunekoa, baina ehunka hildako eragin zituena. Eta Zweig Vienan egon arren, gerra haren epizentroan, aitortzen du ez zuela ezer ikusi, ez zuela ezer jakin. New York, Londres edo Pariseko biztanle batek informazio gehiago izango zuela, prentsaren bitartez, berak baino. Hori omen iraultza modernoen singulartasuna, hirien espazio neurrigabean gertatzen direla, eta, hartara, biztanleen gehiengoarentzat erabat oharkabean pasatzen direla. Harago doa Zweig: "Garaia zehazten duten mugimendu nagusiak hastapenetan ezagutzeko aukera ukatzen die historiak garaikideei". Are lurraldekideei.

Bizi naizen herrialdeko egoera politikoa bero jartzen ari dela jakiten dut, jaio nintzen herrialdeko jendea hasten zaidanean deika, galdezka, espantuka. Telebista, irrati, egunkari, lagun-etxekoek ere, maizago deitzen dutelako konturatzen naiz zerbait pasatzen ari dela hemen. Baina badakit orduan ez dutela nigatik egiten, ez dutela nola nagoen jakiteko deitzen, haiengatik baizik, historiak ukatzen dien hori ezagutu nahi dutelako. Ulertzekoa da. Jarrai dezatela deitzen, beraz, nahiz iraultza modernoak –halakorik balego beti– neronentzat ere, edo batez ere, oharkabean pasatzen diren. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"ERAKUTSI DUGU BESTE MOTA BATEKO JAIAK MARTXAN JAR DAITEZKEELA IRUÑEAN"

JAI HERRIKOIEN ALDEKO GORA IRUÑEA! PLATAFORMA

Plataformak amaitutzat eman du bere ibilbidea. "Hamar urte baino gehiago eman ditugu jai herrikoi, parte-hartzaile, euskaldun eta feministen alde lanean. Erakutsi dugu ilusioz eta ahaleginez, talde lanetik, beste mota bateko jaiak martxan jar daitezkeela Iruñean. Edalontzi berrerabilgarria jai guztietan sartzea lortu dugu. Lan garrantzitsua egin da herri mugimendua kontzientziatzen gure jaietan gertatzen diren eraso sexistak kudeatzeko... Kontziente gara lan asko geratzen dela egiteko", eta erreleboa espero dute. **2019/10/21**

EKONOMIAREN TALAIAN

Txiletik Euskal Herrira, injustizia globalizatu da

JUAN MARI ARREGI

Desoreka eta aberastasunaren banaketa injustua, prekarietatea eta pentsio miserableak, ez dira Euskal Herrirako soilik, mundu osoan aurkitzen ditugu. Frantziako Estatuan, Ekuadorren eta Txilen ere neurri ekonomiko antisozialen kontra mobilizatzen ari dira. Ehunka zauritu, dozenaka hildako, milaka atxilotu.

Eta bien bitartean, Ingalaterran kamioi-hozkailu batean 39 hilotz aurkitu dituzte; migratzaileak. Injustiziaren eta desoreka sozialaren globalizazioaren ondorio da hori guztia, gobernuek sostengatua.

Horren aurrean, kapitalismoak bere burua "berrasmatu" nahi du etekinak pilatzen segitzeko. Espainiako *El País* egunkariak bost orrialde eskaini zizkien sistemaren arrakalei –Kapitalismoa hil da. Gora kapitalismoa!–: "Eredu hegemonikoa erantzunik gabe geratzen ari da desberdintasun sozialek, aldaketa klimatikoak eta globalizazioak dakartzaten erronken aurrean. Adituek bere berrasmatzea proposatu dute, planeta gobernatzen segi dezan".

Berriz asmatuta ere, kapitalismoak ez dio utziko izaten benetan denari: pobrezia eta heriotzaren eragile. Espainiako Bankuaren arabera, Espainiako Estatuan –Hego Euskal Herriko herritarrak barne– milioi bat eta bost milioi dolar arteko ondasuna duten 979.000 aberats daude orain, 2018an baino 33.000 gehiago, %5,3 gehiago alegia. Horietatik 61ek 500 milioi dolarretik gorako ondasuna dute. Halako sistema, honako ondorioak.

Datorren greba orokorrak, Euskal Herrian urtarrilerako deitu dena, sistema alternatibo eta solidario baten alde egiteko apustua izan beharko luke. ●

ANALISIA

ATHLETIC CLUB

Diru publikoa eliteko kirolari?

JON TORNER ZABALA

Bero antzean dago panorama gizonezko euskal txirrindularitza profesionalean. Euskadi-Murias taldea desagertu egingo da. EAEko lehendakari Iñigo Urkulluk azaldu du 2023ko Frantziako Tourra Bilbon hasteko eta 2. etapa Ipar Euskal Herrian amaitzeko lanean ari direla. Euskadi Fundazioa taldeak kategoria bat egingo du gora datorren denboraldian. 2020an Espainiako Vueltako etapa bat Irunen hasi eta Arraten amaituko da, beste bat Gasteizen hasi eta Gaubean bukatu, eta hirugarren batek Lekunberri izango du helmuga. Guztiak ere lekuan lekuko instituzioen babes ekonomiko eta logistikoarekin.

Muriasek bere ibilbidea etengo duela iragarri zuenean, izen eta izatean "Euskadi" daramaten bi proiekturi ekonomikoki (babes publiko edo/eta pribatuari dagokionez) eusterik ez dagoela agerian geratu zela esaten ari ginen. Baina, hara non, badagoela dirua eta borondatea Frantziako Tourra ekartzeko (Vueltagatik ordaintzea "ohiko" bilakatu da azken urteotan). Noiz eta desagertu direnean ez soilik txirrindulari talde profesional bat, baita Emakumeen Bira (emakumeen egoerak aparteko analisia beharko luke) edota Urkiolako Igoera ere, lasterketa txikiago batzuk larri dabiltzan bitartean.

Gaiak hamaika eta bat adar dauzka, baina bada galdera bat eztabaidarako bide ematen duena, edo eman beharko lukeena: erakunde publikoek diruz lagundu behar al dute kirol profesionala? Diruz lagundu, zuzenean ala zeharka, Athletic, Reala, Alaves, Osasuna, Eibar, Baskonia... edo Murias?

Diru publikoa: zertarako, zenbat, zergatik? Ziklismoa hizpide, harrobia sendotu beharra aipatzen dute batzuek, formazioan lan handiagoa egitea, mugikortasun politika eraginkorrak sustatzea… Lehendabizi oinarria eta gero gerokoak (elitea), agian. Logikoa dirudi. Baina, zer logikaren pean ari da Kirola, zer logikaren pean Politika? Ikuspegi horretatik ulertzekoa da makro-ekitaldiak antolatzeko zenbaitzuk daukaten grina. Musutruk lan egingo duten boluntarioak bilatzen dituen Futbol Eurokopa-eta, badakizue. Futbola dena den ezin da txirrindularitzarekin alderatu. Hark oinarri sendoa du, eta goi-maila are sendoagoa. Bi mundu desberdin izanik ere, bada loturarik (nahi bezainbeste "baina"rekin) euren artean. Bizikletaren kasuan ordea, badirudi batzuentzat oinarria gauza bat dela eta elitea beste bat oso bestelakoa, harremanik ez balute bezala. Tira, bakoitzak oinarritzat zer ulertzen duen ere… ●

EKINKLIK

ALTSASUKOEKIKO ELKARTASUN UHOLDEA

IRUÑEA. Urriaren 27an, berriz ere milaka pertsona bildu ziren Espainiako Auzitegiaren aurkako ebazpena salatzeko eta gazteekiko elkartasuna adierazteko (antolatzaileen arabera, 52.000 lagun elkartu ziren Nafarroako Justizia Auzitegiaren aurrean). Altsasukoak Aske taldeak eta gazteen gurasoek hartu zuten hitza, eta gogor salatu zuten Altsasuk eta beren seme-alabek bizi duten egoera. Azpimarratu zuten Espainiako Estatuak asko sufriarazten diela, baina hala ere ez dutela amore emango.

ZINEMA

5 pelikula europarretik bakarra da emakume batek zuzendua, Europako Ikus-entzunezkoen Behatokiaren txosten batek nabarmendu duenez.

Emakumezko zuzendarien filmen kopuruak gora egin duen arren, datuek "poliki egiten dute aurrera": 2003an %15 ziren, 2011n %17 eta 2017an, %19.



Gobernu aldaketa Txilen, herritarren protestek lortua

ARGIA

Demokrazia 1990ean berreskuratu zuenetik, inoiz izandako protestarik handiena bizi izan du Txilek, pasa den urriaren 18az geroztik. Hiriburuan milioi bat eta 200.000 lagun inguru bildu zituen urriaren 25eko elkarretaratzearen ostean, ministro guztien kargugabetzea iragarri zuen Sebastian Piñera presidenteak.

METROAREN PREZIOA PIZGAILU

Metroaren salneurria igotzeak eztandarazi zuen herritarren pazientzia, baina pentsioen pribatizazioagatik, osasun sistema prekarioagatik, gutxieneko soldata baxuengatik... ere atera dira kalera herritarrak, eta istilu bortitzak izan dituzte. Herritarren erantzun masiboaren aurrean, metroaren salneurria ez igotzeko erabakia hartzeaz gain bestelako erreformak iragarri zituen presidenteak, barkamena ere eskatu zuen. Baina protestek ez zuten etenik izan.

HILDAKOAK, ZAURITUAK, ATXILOTUAK

Gutxienez 19 hildako, ehunka zauritu eta milaka atxilotu utzi dituzten istiluek aurrekaririk gabeko krisi politikoa eragin dute gobernuan. Neurri neoliberalen kontrako herritarren borrokak ozen egin du oihu: "Herrialdea esnatu egin da!".

AUZITEGIAK. Zigorrik gabe utzi ditu epaileak Iruñeko Maravillas gaztetxearekin lotu dituzten 22 gazteak, akusazioak froga eskasak zituela ondorioztatuta. Bestalde, 28 urteko kartzela zigorra ezarri diote Izar Majarenasen aitari, alaba hiltzen saiatzeagatik.

ELIKADURA ESKOLAN. Eskola jantokien kudeaketa eredua berraztertzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Jantokien "kudeaketa berritzaile eta desezentralizatua" egin nahi duten ikastetxeei "aukera bideragarriak" eskaintzeko eskatu du Eusko Legebiltzarrak aho batez.

KATALUNIA. Matxinadatik mobilizazio iraunkorrera igaro dira Katalunian. Gorenaren epaiaren aurka piztutako matxinada herritarrak Kataluniako sektore independentista bera ere harritu zuen. Bigarren astean, giroa baretu bada ere, mobilizazioak iraunkorra eta masiboa izaten jarraitu du.

GEOPOLITIKAK ZANPATU DITU KURDUAK

AEB EZ, ERRUSIA DA ORAIN NAGUSI EKIALDE HURBILEAN

Lider kurduei entzun zaie 2019ko urrian: "Aukera bakarrak baldin badira edo Assadekin tratua egitea edo gure herriaren genozidioa, dudarik gabe hautatuko dugu gure herria bizirik jarraitzea". Rojavako iraultza eta Siriako Kurdistan autonomoa likidatu ez baditu, ataka estuan jarri ditu potentzia handien talkak. Siriari dagokionez, zortzi urtetan milioi erdi pertsona hil ostean, lurrikara eragin duten plaka tektonikoek oreka berria lortu dute. Hurrengo astindua arte.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Europako agintarien kezken erakusgai izan daiteke *Der Spiegel* alemanaren erredakzioak urriaren 18an "*Siriako debakleak zer esan nahi duen Ekialde Hurbilarentzat eta Europarentzat*" analisian idatzia: "Hona egoera zertan den Sirian: iparramerikarrek alde egin dute, turkiarrak sartu dira, kurduek ihes egin dute eta errusiarrak saiatzen ari dira turkiarren aurrerakada geldotzen. Damaskoko diktadoreak pozik izan behar du, Moskuren laguntzarekin laster Siria berriro kontrolpean edukiko duelako XXI. mendeko masa-hiltzailerik handienak. (...) AEBek alde eginik Siriaren ipar aldetik eta eskualde horretako erabakiak Putin, Erdogan eta Assad autokraten esku daudela, Europaren ortzemugan arriskuak ageri dira".

Nazioarteko aktualitatean interesatua den herritarrari oso gutxitan tokatuko zaio ikustea urriko egun horietan egokitu dena bezalako gertakizun kate azeleraturik. Soldadu yankiek Siria iparraldeko posizioetatik alde egin eta ordu gutxitara Turkiako soldaduek ekin eskualdea erasotzeari, honen eraginez YPGko miliziak –ordura arte AEBen babesa eduki zuenak– dei egin Baxar al Assadi negoziazio eske, eta berehala Errusiako militarren zaintzapean hasi eta burutzea negoziaketa.

Asko aipatu da amerikarren erretiradaren irudiak bildu dituen bideo bat, Mambij ondoko base militarrean filmatua: hondar koloreko oihal-etxolak basamortuan eta bertan militarrek presaka alde egitean bere hartan utzitako instalazioak, komunak, izotzgailuak, Coca Cola latak, erregai upelak... eta diesel motorrak piztuta martxan! Biharamunean AEBen hegazkinek bonbardatu omen zuten basea, horrelako irudi umiliagarri gehiago ez jasateko.

Aldiz... zenbait adituk aurreratu du gertakizun kate osoa aurretik prestatutako gidoi baten arabera jazo dela, gatazkan esku hartzen duten lau indar nagusiek oreka berria finkatu eta aldi berean Erdogani, Putini, Assadi eta Trumpi berari egin beharreko mugimenduak justifikagarri egiteko. Orriotan lehen ere aipatu izan dugun *Moon of Alabama* bloga da tesi hori defenditu dutenetako bat, sinesgarritasuna duena gertatu baino dexentez lehenagotik ari zelako aurreratzen nondik nora joango ziren tiroak.

Moon of Alabama-k –Elijah Magnier eta beste zenbait adituren ildoan– iragarria zuen abian zegoela "*Win-win-win-win plan*" (lauak garaile) bat eskualdean, asteen joanean berretsi dena: "Turkiak Siriaren ipar-ekialdea inbaditzea pentsatuta zegoen Trumpi arrazoi bat emateko AEBen tropak erretira zitzan. Pentsatua zegoen ere indar kurduei presio egiteko, Siriako Gobernuaren agintea onar zezaten. Errusiak aurretik antolatuta zeukan kurduen indarrak Damaskoko tropez ordezkatzea, eta hauen mugimenduak AEBen militarrekin koordinatuak zituen. Turkiak onartua zeukan Siriako Gobernuak eskualdea berriro kontrolatzea bazela aski berme bai gerrilla kurduak eta bai bere mugan proto-estatu kurdu batek eraginten zioten kezka lasaitzeko".

Analisi honen arabera, denak gustura *win-win-win-win* egoerarekin. Erdoganek erakusten du arrakastaz aurre egin diela PKKri eta mugan proto-estatu kurdu bat sortzeko ahaleginari. Trunpek bete dezake AEBetako tropak alferrikako urrutiko gerretatik etxeratzea, hauteskundeetan agindu bezala. Siriak ipar-ekialdeko lurraldea berreskuratzen du, horko baliabide oso handiak barne. Errusiak prestigioa irabazi du munduan eta eragina handitu Ekialde Hurbilean, AEBetako armada boteretsua handik kanporatuta. Denak pozik, salbu eta kurduak. Hauek dira jokaldi honetan galtzaile nagusiak eta berriro itzuli dira abiatu ziren puntura.

Baina nola lortu du Errusiak Ekialde Hurbilaren zaindari nagusi geratzea, duela gutxi arte inperio gaindi ezina ziruditen AEBei beldurra galduta? Esplikazioa egon daiteke urteotan AEBetako armada ahalguztidunari aurre egiteko batik bat Errusiak eta hein batean Txinak eta Iranek ere garatu dituzten arma eta estrategia berrietan.

AEB-EN MISILAK PASA EZIN DIRENEAN

Urteotan askotan aipatu den bezala AEBek militargintzan teknologia aurreratuenekin egindako jauzi iraultzailearen aurrean –*Revolution in Military Affairs*–, potentzia txikiagoek ere egin dituzte gerra prestakizunetako beren

KOBANEN
SOLDADU SIRIARRAK BEREN BANDERA ETA ASSADEN ERRETRATOA ERAKUSTEN YPG KURDUAREN BANDERA HORIAREN ONDOAN.

etxeko lanak. Justu hauek ari dira lorten Andrei Martyanovek *The (Real) Revolution in Military Affairs* bataiatu duena.

Armada sobietarrean ofizial aritu eta gaur AEBetan bizi den Martyanovek dio benetako iraultza ez AEBek baina Errusiak egin duela armagintzan, amerikarrek menderatu ezin dituzten arma berriak sortuz. Eta AEBek lehengo nagusitasun militarra galduz, nagusitasun geopolitikoa ere galdu dutela.

Garai berrien tonua irailaren 16an eman zuen Vladimir Putinek Ankaran Erdoganekin eta Irango Rouhanirekin batera eskainitako prentsaurrekoan, bideozko irudiek jaso zutenez. Yemeneko matxinoek eraso berria zuten Saudi Arabiako petrolio findegi handiena. Ikusi galdera-erantzunak:

–Kazetaria: Errusiak aurreikusita dauka Saudi Arabiari laguntza ematea?

–Putin: Prest gaude Saudi Arabiari beharrezko laguntza emateko, beren buruak defenditzekotan. Buruzagi saudiek hartu behar dute erabakia, Iranekoek S-300 misil sistemak erosiz eta Erdogan lehendakariak gero Errusiaren hegazkin-ontzien aurkako S-400 Triumph sistema erosiz egin zuten moduan. Saudiarren azpiegiturak bermez babesteko balioko lukete.

–Rouhani: Beraz... saudiarrek erosi beharko lituzkete S-300 edo S-400ak?

–Putin: Haiek erabaki behar dute.

Eta hiruek barre egin zuten kontuarekin.

Izan ere, AEBek Saudi Arabiari saldu dizkioten arma garesti eta sofistikatuak garatuta daude amerikarren estrategiarako, erasorako balio dute baina ez kanpoko erasoei aurre egiteko: beren babes sistemak ez ziren gai izan Yemendik matxinoek bidalitako drone eta jaurtitako misil askoz merkeagoak ez hauteman eta ez suntsitzeko. Aldiz, Sirian bertan ikusi da errusiarrek ekoiztutako babes sistemak eraginkorrak zirela, horiei esker dirau boterean Assadek.

Baina, gainera, Errusiak are arma berri sofistikatuagoak aurkeztu zituen 2018an, hipersonikoak, funtsean arerioenak baino abiadura handiagokoak. Errusiako defentsa ministroak azaldu zuen AEBen estrategiatik bereizten zituena: "Guk ez ditugu hegazkin-ontziak behar, horiek hondoratzeko armak dira behar ditugunak". Eta bide batez, Txinari eskaini dizkio elkarlanean aritzeko.

Sirian ikusten ari garenez, indar harreman militarretan aldaketa handiren bat jazo da munduan eta orain hori geopolitikan ari da islatzen. Europari ere egokituko zaio birkolokatzea. ●

Ander Magallon eta Urtzi Arrieta

ETXEGILEAK, BETIERE BIO

“

GERO ETA ETXE HERMETIKOAGOAK EGITEN ARI GARA, BAITA TOXIKOZ BETEAK ERE

”

Ateak zabaldu gabe ere, 1.000 pertsona inguru pasa dira jada Zubiri eta Leranotz herrien arteko bidean dagoen Agotzenea Ekohezkuntza Gunetik. Esteribarko bi ekintzaile gazte, Ander Magallon eta Urtzi Arrieta, dira proiektuaren sortzaileak.

REYES ILINTXETA **DANI BLANCO**

Zer da Agotzenea?
Ekohezkuntza gune bat, jendeari erakusteko bio-eraikuntza aspaldikoa izan arren, gaur egungo beharretarako ere egokia dela, eta gainera, gure osasunerako eta ingurumenerako eraikuntza konbentzionala baino onuragarriagoa. Gune hau lastoz, egurrez eta beste material naturalez egina dago, eta hasieratik jendea ari da honen eraikuntzan parte hartzen. Auzolan erraldoi moduko bat da.

Nola iritsi zarete honetara?
Urtzi Arrieta Puñal (argazkian eskuinekoa)**:** Ni Zubirikoa naiz. Arkitekturaren munduan sartu nintzen ikasketak bukatu ondoren. Iruñeko Hezitzaile eskolan Animazio Soziokulturala eta Gizarte Integrazioa ikasi nituen. Hezkuntza eta ingurumenarekiko kezka uztartzea zen nire gogoa, eta gainera, herrian biziz. Prozesuan aurrera egin ahala, gero eta argiago ikusten genuen zenbat gauza zegoen erakusteko. Agotzeneak ikasketa zentro bat izan nahi du, jendeak ikus dezan gauzak nola egin daitezkeen. Ez gara eredu bakarra, noski, milioika daude munduan, baina guk erakutsi nahi dugu halako kudeaketa integral batek zentzua duela orain eta hemen.
Ander Magallon Lusarreta (argazkian ezkerrekoa)**:** Atarrabian hazi nintzen, baina familia Esteribarkoa dut. Proiektu Mekanikoen Garapena ikasi nuen Arrasaten eta 17 urte nituenetik beti aritu izan naiz eraikuntza lanetan. Hainbat elkarte eta mugimendutan aritu naiz aspalditik eta iruditzen zait hau modu hoberena dela lana eta nire filosofia uztartzeko. Urtzi eta biok hasi ginen baratze ekologiko batekin, bere momentuan egin genezakeen gauzarik iraultzaileena iruditu zitzaigulako, eta pixkanaka sartu gara saltsa honetan. Ikasiz, hausnartuz eta akatsak eginez ere bai, ari gara hau dena abian jartzen.

Guk uste dugu jende gaztea landa eremuan bizitzea oso garrantzitsua dela eta gero eta aukera gehiago daudela. Nahi dugu jendeak gure adibidea ezagutu eta ikus dezan hemen gauza asko egin daitezkeela hainbat ekimenen bidez.

Nola sortu zen proiektua?
Duela sei urte hasi ginen lehenbiziko ideiak garatzen. Hasierako prozesua luzea izan da. Arkitektoekin bilerak egin ondoren, askotan kanpora joan behar

ETXEKO ARETO NAGUSIA

"Gure espazio garrantzitsuena da. Toki aproposa taldeekin lan egiteko hezkuntza eta formakuntza saioetan. 90 metro koadroko gela da, zutaberik gabea. Hori lortzeko sabaiaren egurrezko egitura Hogan estilokoa da. Berez, navajo indiarrek erabiltzen duten sistema da. Guk egokitu dugu, estetika kontuan hartuta. Azalera handian zutaberik behar ez izatea da abantaila nagusia. Egurrak goxotasuna ematen du eta espazioa oso atsegina da. Gure ikurra da.

Gune nagusian, hiru etxetxoetan bezala, hormak desberdinak dira, kokapena eta funtzioaren arabera. Iparrera begira daudenek mendi magalari eusten diote. Hor termo-buztinezko pareta sendoak egin ditugu. Hegoaldera begira daudenak, aldiz, lastoz eta kristalez. Lastoak isolamendu termikoa egiten du eta kristalak eguzkiaren argia sartzen uzten du. Eguzkiari esker igeltsuzko eta hareazko zorua berotzen da. Berotasuna poliki-poliki askatuz joango da eta gela osoa berotuko du. Estrategia pasiboa deitzen zaio".

JANTOKIA

"Harrerarako tokia ere bada. Ondoan bi sukalde eta despentsa txiki bat ditugu. Hemen inertziazko berogailu bat jarri dugu. Adreilu erregogorraz egina dago. Sua eginda, estufaren paretak izugarri berotzen dira. Ondoren, berotasuna egun osoan askatzen joango da eta goxotasuna lortuko da. Sukaldeetan ere bobeda moduko batzuk egin ditugu. Teknika desberdinak erabili ditugu, etxea bera eskaintza formatiboa baita. Etxea bera erakusteko gaia da. Horretarako, egiaren leihoak utzi ditugu pareta desberdin guztietan. Estali gabe utzitako tarteak dira, jendeak ikus dezan hormak nola dauden eginak.

Bestalde, baratze handi bat jarriko dugu helburu didaktiko eta produktiboa-

izan dugu formakuntza bila, hemen halakoak egiterik ez dagoelako. Horrez gain legeak, araudiak, prozedura administratiboak... ikasi behar izan ditugu honaino iristeko. Duela urte bat eta erdi hasi ginen eraikitzen. Gaur egungo Agotzeneak ez du zerikusi handirik duela sei urte irudikatzen genuenarekin. Hau da prozesuan hartu duen forma eta ez dakigu, egia esan, noraino eramango gaituen, baina gu oso pozik gaude.

Dena pausoka eta gure kabuz egin dugu, bio-eraikuntza proiektuen kudeaketa hain modu integralean hartzen duen ikasketarik ez baitago inon.

> **"Garrantzitsua da jendeak jakitea modu konbentzionalean egindako etxea material naturalekin berritu daitekeela"**

Nola lortzen duzue finantzaketa?

Mikrokooperatiba gara eta bi lanpostu sortzeagatik laguntza txiki bat izan dugu, baina proiektua abian jartzeko gure aurrezkiak erabili genituen eta mailegu bat eskatu behar izan genuen. Fiare banku etikoa hautatu genuen. Hau oso garrantzitsua da gure ustez, prozesuari koherentzia emateko, eta baita jendeari erakusteko ere halako ekimenak abian jar daitezkeela banku konbentzionaletara jo behar izan gabe.

Azken urte eta erdi honetan Nafarroako Gobernuaren Lan Sarearekin ikastaroak egin ditugu eta Nafarroako Mendialdea Landa Garapeneko Programaren laguntza jaso dugu; programa Europako FEADERek eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen dute eta Cederna-Garalurrek kudeatzen du. Hala ere, oraingoz, proiektua ez da errentagarria. Fase hori hasiko da, teorian, zentroa eta alokairuko etxetxoak zabaltzen ditugunean.

Zein abantaila ditu material naturalez egindako etxeak?

Eduki organiko lurrunkorrak gure osasunari kalte egiten dioten partikula txiki eta toxikoak dira. Askotan etxeak eraikitzeko materialetan etortzen dira. Gero eta etxe hermetikoagoak egiten ari gara eta toxikoz beteak. Gero eta gehiago ari gara geure burua pozoitzen.

Etxeak hilobi bihurtzen ari gara?

Neurri batean bai. Esaten da planeta desagerraraziko dugula, baina guk uste dugu ez dagoela batere argi ez ote garen gu lehenago lurretik desagertuko. Hala ere, gure esku dago aldatzea edo ez. Gu perspektiba baikorragoa ematera gatoz. Europako beste herrialde batzuetara begira gaude: Alemania, Frantzia, Austria edo Belgika bezalako tokietan garatzen ari diren esperientzia positiboak hona ekartzen ari gara. Alternatiba errealak dira eta hemen daude, ez gara ametsetan ari.

Eta Nafarroan, Euskal Herrian, zer moduz gabiltza?

Estatua, oro har, oso atzeratuta dago Europako beste herrialde askorekin alderatuta. Hego Euskal Herria osoan eta Katalunian, aldiz, egoera hobea da. Aitzindariak gara Estatuan. Iruñerrian, adibidez, Berriozarren eta Noainen, baditugu bio-eraikin publikoak, eta lastozko eraikin gero eta gehiago daude Nafarroan, nahiz eta jende asko horretaz ez ohartu, bukatutakoan kanpotik ez delako igartzen. Profesional askotxo dugu honetan lanean eta aprobetxatu behar dugu sareak sortzeko. Horretan ere ari gara lanean Agotzenean. Lastozko Eraikuntza Sare hispanoarekin eta Europako hainbat elkarterekin harremanetan gau-

rekin. Hemen hartu eta bertan janaria prestatzeko aukera ere izango dugu. Zero kilometro baino gutxiagoko elikagaiak izango dira. Oilategi bat jartzeko asmoa dugu janari hondarrak aprobetxatzeko eta lurra lehenera ekartzeko lanean oiloak aliatuak direlako".

LOGELAK

"Lau logela ditugu, literak dituztenak. Denera 30 plaza. Horiez gain, bigarren aldi honetan, hiru etxetxo ari gara eraikitzen bikote edo familientzat. Lo egiteko beste hamabost toki izango ditugu haietan.

Gela argitsuak dira, batere toxikorik gabeak. Eguzki plakek berotutako ur zirkuitua da logeletako berogailua. Ireki eta itxi egin daiteke logela bakoitzean. Energia berriztagarriak erabiltzea bezain garrantzitsua da gure kontsumoa errebisatzea. Energia ez dugu alferrik xahutu behar, beraz ez bagara ari etxe osoa erabiltzen, ez ditugu gela guztiak berotu behar.

Logeletan tentsioaren deskonexio sistema dugu. Gauez ez da argindarrik kableetan eta ez da eremu elektromagnetikorik sortzen. Argia piztu ahal izango da, komunera joateko, adibidez, baina ez da argindarraren etengabeko zirkulazioa egongo".

KOMUNAK

"Uraren kudeaketa arduratsua egin nahi dugu eta horretarako ur zikinen hustubide sistema propioa daukagu. Ur gris eta beltz guztiak kanpoan dugun hobi batera bideratzen ditugu. Solidoa dekantatzen da eta likidoa fito-arazketa egitera pasatzen da beste toki batera. Arazketa-putzu bat sortu dugu ura garbitzeko ahalmen handia duten iragazki naturalekin: harea, harri koskorrak eta landareak. Etxetxoetan komunak lehorrak izango dira, urik behar ez izateko eta gai solidoak konpostatu ahal izateko.

Etxe hau ia erabat autonomoa da. Kanpotik ekartzen dugun gauza bakarra ura da. Mankomunitateko saretik ekartzen dugu, beste guztia hemen sortu, garbitu eta kudeatzen dugu".

de ongi joan diren esperientziak hona ekartzeko.

Hala eta guztiz ere, bide luzea gelditzen zaigu egiteko. Adibide bat: Akitanian hamalau pertsona ari dira lanean lasto eraikuntza kudeatzen duen klusterrean eta Espainiako Estatu osoan pertsona bakarra dago, eta jardunaldi erdiz gainera, Lasto Eraikuntza sare osoa eramateko.

Baina Nafarroan, adibidez, gauza asko egiten ari dira *Passivhaus* motako etxeak sustatzen, ezta?

Nafarroako Gobernua Passivhaus eta kasik zero kontsumitzen duten etxeei begira ari da jartzen eta lehenengoa da parke publikoko etxebizitzetan eredu hau zabaltzen ari dena. Aurrerapauso bat da, baina badago akats handi bat: material naturalak bazterrean uzten ari dira. Berriro etxe hermetikoak egiten ari dira, gai toxikoz beteak. Guk ere ia zero kontsumoko etxeak egiten ditugu, baina pauso bat aurrerago joanez, gure osasunarekin eta ingurumenarekin bat eginez. Kontuan hartu behar da, bestalde, hainbat materialen sorreran behar den energia kontsumoa. Gaur egun material naturalak erabiliz, prestazio berberak lor daitezke. Hor lan handia dago egiteko.

Zer-nolako materiala da lastoa eraikuntzan? Nola erabiltzen da?

Ehun eta piko urte badira fardo formatuan ezagutzen dugula, baina betidanik mundu osoan erabili izan da ahotza edo lastoa etxeak egiteko, bereziki buztinarekin nahastuta. Aski ezaguna da adobea eta mundu erdia baino gehiago eraikia dago sistema horrekin.

Gero eta sistema efizienteagoak ditugu eraikuntzan lastoa erabiltzeko. Guk zero kilometroko lastoa erabiltzen dugu, Iruñerrikoa. Egurren artean sartzen dugu, oso isolamendu parametro handiak dituelako, gehienbat berorako eta soinurako. Hori material natural mineralekin, karea eta buztinarekin, nahasten dugu egiturari gogortasuna emateko eta hezetasuna erregulatzeko. Etxeok konfort handia ematen dute eta sartu bezain laster nabari dugu zerbait gertatzen ari dela gure inguruan.

Bio-eraikuntzan asko erabiltzen da lastoa, konbentzionalean ere sartzen ari da?

Orain ezagutzen dugun eraikuntza konbentzionalak 100-150 urte baino ez ditu, beraz gu ez gara ezer berririk proposatzen ari, betidanik erabili izan diren material eta teknikak dira, oraingo beharretara egokituta. Gutxika egiten ari den prozesua da. Agotzenean lortu

nahi dugu jendeak zein aukera dauden jakitea, zer nolako kalitatea lortzen den halako materialak erabilita. Ikusten ari gara material naturalek gero eta presentzia handiagoa dutela.

Beste erronka etxeen zaharberritzean material hauek ezagutzera ematea da. Etxebizitza asko dago eta hoberena litzateke egokitu eta berriro erabiltzea, hainbeste etxe berri egin gabe. Oso garrantzitsua da jendeak jakitea modu konbentzionalean egindako etxea material naturalekin berritu daitekeela. Asko hobetuko litzateke eta gai toxikoak nabarmen gutxitu. Herrietako etxeetan, familiabakarrekoetan eta etxebizitza blokeetan ere egin daitezke halakoak. Bio-eraikuntzak, alternatiba erreala izateko, halako soluziobideak eman behar ditu mota guztietako etxebizitzetan.

Orain material natural estandarizatuagoak ditugu, erabiltzeko errazagoak, eta gero eta errealagoa da hirietan planteatzea errehabilitazioa material naturalen bidez.

Turista moduan, ikastarorik egin gabe, etortzeko aukerarik ere egonen da?

Bai noski. Hiru etxetxo ari gara eraikitzen, gero eta jende gehiagorengana iristeko asmoz. Besterik gabe naturarekin bat bizitzera etorri nahi duen pertsona ororentzat zabalik egongo da heldu den urteko udaberrian. Osasuntsuak diren materialez egindako etxe batean bizitzea nolakoa den erakutsi nahi diogu jende orori, eta enpresa bezala horri ere errentagarritasuna atera nahi diogu.

Auzolan erraldoi moduko bat da?

Bai. Zabaldu gabe ere jada mila pertsona inguru pasa dira hemendik. Formakuntza saioak egin ditugu, bisitaldiak, hitzaldiak... eta komunitatearekin harremanetan egon gara beti jende guztiari hona etortzeko aukera emateko, ikusteko eta parte hartzeko hemen egiten ari garen proiektu honetan. Jende mordoa pasa da hemendik. ●

Gaztetzen duen tsunamia

DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

Ez zaituztet engainatuko. Une honetan zaila da Katalunian Auzitegi Gorenaren epaiaren aurkako mobilizazioen lehen astean gertatu denaren analisia egiten saiatzea; izan ere, bederatzi eta hamahiru urte arteko kartzela-zigorra ezarri die bederatzi buruzagi politiko eta sozial independentistari.

Lehenik eta behin, egiaztapen bat: inork ez zuen espero –kontrakoa esaten duenak gezurra esaten du– horrelako erreakziorik. Ez naiz gertaturiko istiluez ari, kasua hori izanik ere, baizik eta oraindik ere herrialde osoko kaleetan izaten jarraitzen duen mobilizazio iraunkorraz. Azpiegituren mozketak, martxa jendetsuak, bat-bateko kontzentrazioak eta abar; eta protesta-modu luze bat, non mundu guztiak bere lekua aurki dezakeen Kataluniako geografiako edozein lekutan.

Bi urteko doluaren ondoren, paralisi instituzional kroniko batekin, independentismoak berriro hartu du ekimena kaleetan. Alde batera utzi ditu desobedientzia zibileko eta protesta baketsuko zenbait modu barregarri, baita orain arte kriminalizatu ez diren beste metodo batzuk erabili ere, alegia, metodo horietako bat bera ere ez da baztertu, estatuak fitxa mugitzera behartuko duen egoera jasanezina sortzeko.

Hori esanda, ziurtasun bat: Espainiako Barne Ministerioa da Kataluniako polizia autonomikoa *de facto* kontrolatzen duena. Batzuek protestaren lehen egunetan egiaztatu genuen, Espainiako Polizia Nazionaleko istiluen aurkako unitateetako agintariek Mossoei aginduak ematen zizkietela, noiz eta non kargatu adierazten zietela ikusita. Azalpena sinplea da: zer pizgarri du PSOEren gobernuak segurtasun nazionalari buruzko Legea aplikatzeko eta Mossoen kargu formalki egiteko, atzeko atetik egin dezakeenean, eta Generalitateko gobernuaren bizkar botatzen duenean egindako polizia gehiegikerien presio guztia?

> Zer pizgarri du PSOEren gobernuak segurtasun nazionalari buruzko Legea aplikatzeko eta Mossoen kargu formalki egiteko, atzeko atetik egin dezakeenean, eta Generalitateko gobernuaren bizkar botatzen duenean egindako polizia gehiegikerien presio guztia?

Palaun ez dago inor agintean, eta herri erantzunak berriz ere gainditu ditu. Bakarrik gaude, baina "gu" izaten jarraitzen dugu. Hasierako beldurra igaro ondoren, gure begiak argitu ziren sugarren beroan. Ia-ia sumatu ez genuen belaunaldi bat bere txandaren zain zegoen, eta ez dago prest onartzeko inork agintzea noiz, nola eta non protesta egin. Orain arte, kostua oso handia izan da: aste bakar batean 579 zauritu izan dira, horietako lauk begia galdu dute polizia-jaurtigailuek kolpatuta, bik barrabil-masa galdu dute eta beste bat larri dago, buruan beste tiro bat jaso duelako. 194 pertsona atxilotu dituzte, eta horietatik 76ri kautelazko neurriak ezarri dizkiete; 28, berriz, fidantzarik gabe espetxeratu dituzte. Tantaz tantako konstante bat da oraindik.

Gehienak nerabeak dira, 25 urtetik beherako neska-mutilak. Prekarietate ekonomikora, krisi klimatikora, askatasun zibil eta politikoen murrizketara, independentziari eta haiei dagozkien guztiari buruz erabakitzeko eskubideari uko egitera bultzatzen dituen mundu baten aurrean planto egin dute. Hain dute galtzeko gutxi, beldurra ere galdu dutela. 2017ko urrian beldur hori sentitu zuten, orain aurre egiten dioten agente berberek eraso egin baitzieten beren eskolei. Diotenez, ez dira eroso sentitzen poliziari aurre eginez, baina ziur daude ez diotela autodefentsari uko egin nahi. Estatuak beldurra die eta herriak bizkarra emateari utzi dio. Horregatik, ziur nago hesola erori egingo dela haiekin, lehenago edo geroago. Inork ez diezaizkien hegoak moztu. ●

Munduko herriok: suntsi zaitezte!

ANTTON OLARIAGA

SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Halaxe kantatzen zuen Siniestro Totalek 1988tik. Humanitate eta planetaren suntsipenari usaina hartu genion aspaldi, harik eta usain hura hats sarkor bihurtu den arte.

"Gu" izenordea erabili dut, horretaz arituko bainaiz: "Gu" esaten duten bakoitzean zelan esan nahi duten "zuok, herritarrok"; zergatik, errepikatuaren errepikatuaz, hondamendiaren erantzule bakar bihurtu gaituzten.

"Ikus ezazue zer egiten ari zareten munduarekin plastikozko poltsak erabiltzeagatik", "ordaindu beharko duzue", gure bizitza eta osasunarekin nahikoa ez balitz, bosna zentimotan ere bai. Eta halaxe azaldu digute albistegian: plastikozko poltsen erabilera azken hamarkadan itzel murriztu bada ere, azken urtean kobratzen hasiak direlako ei da arrazoia. Marujok, gure arduragabekeriaz munduarekin amaitzen egoteaz gain, eskulaburrak ere omen gara. Plastikoaren ekoizpena gelditzeaz, halere, txintik ere ez. Eta bai, zekenak izan beharko, laster okela ere luxuzko artikulu bihurtuko ei digute eta.

Bien bitartean, munduko 100 enpresa dira CO^2ren %71ren errudunak *(The Carbons Mayor Database* txostena); Espainiako Estatuan, hurrenez hurren, Endesa, Repsol-Petronor, Naturgy eta EDP dira lau kutsagarrienak, politikari ohien urrezko erretiroa izateaz gain. Eta hemen Eusko Jaurlaritzak ez dauka lausengu nahikorik Josu Jon Imazen Petronorrentzat; gurutzaontziren bat Bilboratzen denero bezala, halako itsasontziek urtean Europako auto guzti-guztiek baino hamar bider sufre dioxido gehiago bota arren *(Transport & Environment*-en datuak). Baina arazoa zurea da, kotxe elektriko bat erosteko nahikoa diru ez edukitzeagatik. Horregatik ere ordaindu beharko duzu.

"Birzikla ezazue". Ekoizpena beheratu eta berrerabili ostean, beste erremediorik ez dagoenean, egin beharreko azken B hori gaitz guztien panazea bailitzan. Anartean, erraustegiak bai ala bai eraiki dira gure diruaz, beste batzuek probetxua atera dezaten (FCC eta Sener, besteak beste, ez ote diren horien ugazabak Forbes zerrendatik jausiko).

Baina, trankil, Jaurlaritzak argia ikusi eta klima-larrialdia deklaratu du. Adierazpen instituzionalean, berba potolo artean, neurri zehatz bakar bi: kontratazio publikoetan materialen %40 birziklatua izango dela eta aurrekontuetan partida bat egongo dela... BZO! edo, euskaraz baino, *basque*-z nahiago badute: WTF!

Denok izan behar dugu arduratsuak, baina ez gara denok hein berean arduradunak. Gu, herritarrok, agindu guztiak ondo eta formal beteta ere, ezingo genuke suntsipena eten, suntsipenarekin aberasten direnek dena libre daukaten bitartean. Hala ere, edo horrexegatik, gu seinalatzen gaituzte.

Krisialdi ekonomikoaren hastapenetan esaten zigutena gogorarazten dit honek guztiak: gure posibilitateen gainetik bizitzen egonak ginela eta gerrikoa estutu behar genuela, nork eta guk, ez gorderik ez galdurik izan ez genuenok. Herritarroi errua egoztea kapitalismoaren lehenbiziko pausoa da edozein krisi gure kontura aprobetxatzeko, kapital metaketan beste koxka bati ekiteko eta, instituzioen laguntzaz, errenten trasbase berria bermatzeko.

Ez pentsa datorrena suntsipen "demokratikoa" izango denik eta denok batera eta eskutik helduta abiatuko garenik, Siniestroren kantan bezala. Gu desagerraraziko gaituzten horiexek, ez izan dudarik, bidean are gehiago aberasteaz gain, azkenean salbu egongo dira.

Kapitalismo berdearen eta apartheid klimatikoaren sasoian sartzen ari gara, baina hori hurrengorako utzi beharko. ●

Estrategikoak

KOLDO ALDALUR
KAZETARIA

Esku artean dugun proiektuaren azken helburua garbi izanik, erabaki estrategikoak hartzean, dauzkagun baliabideak egokiro nola erabil ditzakegun aztertu behar ei dugu.

Estrategikoa, proiektua, baliabideak... Hitz handiak. Omen.

Ezin omen zaie eskatu kirol emanaldietan urteetan aditu rolean aritu direnei, komunikazio tresna duten hizkuntza, lanetik kanpo, landu dezaten. Ez omen dute soldatatxoa jasotzen euskaraz txukun aritzeagatik, adituak izateagatik baizik.

Era berean, ezin omen zaie eskatu prentsaurrekoetara azaltzen diren kirolariei, ahalegintxoa egin, eta euskara landuxeagoa erabil dezaten. Kirolariak dira, ez euskara irakasleak.

Ez omen da ulertzekoa, kirolari elkarrizketatuak erdaraz ere baldin badaki, soilik euskaraz erantzuteko aukera izatea.

Ez omen da parte onekoa kirol emanaldiak euskara hutsean eskaintzea, gure hizkuntza ulertzen ez dutenek ere zergak ordaintzen dituztela kontuan izanda.

Azkenik, gustu txarrekoa omen da, besteak beste euskarari esker lana duen kazetariari, kamera edo mikro aurrean ez dagoenean ere, euskaraz jarduteko eskatzea.

Euskaltzaleen Topaguneko buru berria den Kike Amonarrizek esana da giro sozio-politikoa hobera aldatu dela, eta, euskara erdigunera eramanez gero, egungo egoera balia daitekeela aurrerapauso erabakigarriak emateko. Primeran.

EHUko Patxi Azpillaga irakasleak esan berri du, ikerketa talde baten ondorioak laburtzea xede, EiTBn erdarazko kateetan euskara gehiago sartzea komeni dela Euskal Herriko komunikazioan erreferentzia izateko. Dotore oso.

Ildo berean, EiTBko zuzendari nagusi Maite Iturbek Eusko Legebiltzarreko kontrol batzordean azaldu du erakunde publiko honek %20ko diru igoera behar duela aurrekontuetan, lehen katea indartu ostean, plantea daitekeelako euskarazko saio batzuk bigarren katean ematea erdarazko azpitituluz lagunduta. Erabat ados, baina…

Agian zuek erabaki estrategikoak hartzen dituzuen horietakoak zarete. Ni ez. Niretzat estrategikoa da lankideak euskaraz ari direla entzutea; urteetan ondoan izan ditudan kirol adituak euren euskara txukuntzen ari direla jakitea; erdaraz galdetu beharrik ez izatea euskaraz dakienari; kirol emanaldiak nire hizkuntzan jarraitzea; herri bat garela sinesten duen kirolariak denontzat hitz egitea. Guztiok uneoro aletxoa jartzen ez badugu, euskararen etorkizuna besteen eskuetan utziz, akabo estrategiak. ●

Txarra da

UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Langabezian egotea txarra da. Curriculumak bidaltzeak hartzen duen tartea egunetik egunera laburtu egiten da, gero eta azkarrago amaitzen direlako lekuak, indarra, gogoa. Lanbidera egin beharreko itzuliak ere amaitzen dira noizbait. Ikastaroak egin, hizkuntzak ikasten hasi, ez zuenak, kotxeko karneta atera (inbertsioak egiteko dirua edukiz gero)… eta bakoitza bere bizioetara (egunak ordu asko dauzka). Ni, besteak besteak, albisteak eta horiei buruzko iritziak kontsumitzera.

Ea nire kezka arazo larriagotan lurperatzen zen: politika, ekonomia, gerrak, aurpegia jartzen duten feministen arteko bati emandako azken zaplaztekoa, idazle baten burutazio klasistaren bat… Eta haur bat Palestinan, Sirian… Epaitzeko testuingururik behar ez duen bortizkeriaren batek apurtuta. Loak hartzeak lanak ematen ditu gero, digestio txarreko kontuak dira.

Orain ez daukat ordurik (dirua gehixeago). Pentsa daiteke gaiak hobeto aukeratzen ditudala: kezkak nire neurrikoagoak dira. Ironia pixka batez erraz irenstekoak. Espezializatu egin naiz. Presa handiagoa daukat kezkak baino.

Gaur haur bat ikusi dut erreta, goseak edo… ez dakit nongoa zen ere: Yemengoa? Kurdistangoa? Argazki bat zen, zeharka begiratu dudan pantaila batean. Ez dut gero bilaketarik egin. Biharko ordutegia doitzen lokartuko naiz, erraz. Mandotuta. Lanpetuta egotea (ere)… ●

urbil

AZAROKO DOAKO JARDUERAK

Azaroak 1, 17:00
GIZA PROBA
"Ur-Epel" harriarekin giza proba ikusgarria ospatuko da. Dema plaza, Usurbil.

Azaroaren 8tik aurrera
"ARTISTAK GARA"
Sormenezko haurrentzako doako tailerra. Kids Zone gunean.

Azaroak 9
ROCKET LEAGUE TXAPELKETA
Hype Station® gunean.

Azaroak 23
JUST DANCE TXAPELKETA
Hype Station® gunean.

Azaroaren 11ra arte
ZOZKETA
Urbileko Costa Jump berria ezagutzeko 10 sarrera.

ETA GAINERA...

urbil.es

Neurri zuzena

AMANCAY GAZTAÑAGA
AKTOREA ETA ZUZENDARIA

Urduritasunez hurbiltzen naiz, lehen aldiz, zuengana. ARGIArentzat iritzi artikuluak idatziko al nituen galdetu zidatenean, bi aldiz pentsatu behar izan nuen. Bat: nork bere iritzia publikoki ematea, gaur egun garesti irten daitekeen zerbait delako. Bi: ARGIA beti izan dudalako euskal erudituen bizileku, kulturaren *zer* eta *nolak* kontrolatzen dituzten horien parada. Hau honela, zer kontatu nezake nik? Bere burua txikitzat duen emakume honek? Zerbait berritzailea, apurtzailea beharko du izan, artikulu hau irakurriko duten euskal eruditu horien mailan egongo bada.

Harri egiten zait herria. Gogorra, maskulinoa irudikatzen dut zuen txokoa ene eruditu maiteak. Emakumeren bat egongo da noski. Beti gaude bat edo beste, ia beti, gizonezko dugun lagun min baten eskutik iritsiak gure postuetara

Kontatuko dizuet ba, ni, sormen mundutik natorrela, antzerkizalea naizela, aktorea, zuzendaria eta dramaturgo lanak ere egiten ditudala. Eta hau, aho txikiz kontatzen dizuet, ni neu naizen eta egin dudan guzti horren jabe izango ez banintz bezala.

Nire burua definitzeko pudore horrek, hasieran esan dudanarekin du lotura, emakume txiki horren irudiarekin. Ez nuke zuek pentsatzerik nahi, ez naizenik indartsu sentitzen. Kontrakoa. Batzuetan ia ziurtasunez pentsa nezake, superbotereak ditudana. Bestela nola biziraun hemen, kulturaren jabe diren erudituen artean, *gizon-munduan*? Nola sortu diskurtso propio bat, beraien normak eta egiteko erak jarraitu behar ditudanean? Zer kontatu nezake nik, nola, nondik, publikoari ematen zaionaren jabe badira. Sistema beraiena bada, beraien erara sortua. Erreferente femeninorik gabe eraikitako munduan, gu.

Harri egiten zait herria. Gogorra, maskulinoa irudikatzen dut zuen txokoa ene eruditu maiteak. Emakumeren bat egongo da noski. Beti gaude bat edo beste, ia beti, gizonezko dugun lagun min baten eskutik iritsiak gure postuetara. Beharrezkoa den portzentajea txiki hori gara, dena bare mantentzeko eraikia, kexatu ez gaitezen, dena aldatzen doanaren parodia.

Harri herria. Harri, *gizon-munduak* duen sormena ikusteko era, egiteko era. Zauriz beteta ikusten ditut sexu berdineko lankideak. Neurri horietan kabitu ahal izateko zer ebaki behar izan duten jakin gabe. Beraien mundua mozten, mozten, mozten... Neurri zuzena izan arte.

"Denbora luzez gizonezkoei egokitutako postu batean egotea ez da erraza izango, atrebitu egin behar ezta?". Hori galdetu zidaten behin elkarrizketa batean, nire zuzendari paperaren inguruan hizketan genbiltzala. *Gizon-munduan* kabitu izanagatik harro sentitu nintzen. Artean jabetu gabe nintzen zauriaz, nire esentziari ebaki behar izan diodan horretaz. Joana da, ez da berriz nire parte izango. Eta min egiten dit. Zauriak min.

Baina...

Kabitu naiz. Neurri zuzena dut orain. ●

ARGIA

AZOKA.ARGIA.EUS

AZOKAN SALGAI!
15€

+ 4€
BIDALKETA GASTUAK

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. Karta hauekin 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.



Edukiak
Iñaki Sanz Azkue
Biologoa

Ikuspegi pedagogikoa
Lore Erriondo
EHUko irakaslea

Marrazkiak
Eñaut Aiartzaguena

PREMIA BEREZIKO IKASLEAK ASETZEN EZ DITUEN HEZKUNTZA

Eskola inklusiboa saltzen du administrazioak, baina oso bestelako errealitatea deskribatzen dute premia bereziko ikasleen gurasoek: bulegoetan hartutako erabakiek behar baino hezitzaile eta baliabide gutxiago esleitzen dizkiete euren seme-alabei, ikasgela arruntetatik atera eta gela egonkorretara bideratzen dituzte "arazoa" gainetik kendu eta dirua aurrezteko, eta familiek borroka amaigabea errepikatu behar dute ikasturtero, haurra laguntzarik gabe utz ez dezaten.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Olaiak 4 urte ditu eta miopatiarekin jaio zen (giharrak oso ahul izatea eragiten du). Orain arte ordu gutxitan joan da Bakioko eskolara eta ikasturte honetan eskola-ordu guztietan hezitzailea izatea eskatu zuten gurasoek, baina hezitzaile erdia (lanaldi erdia) eskaini zion Hezkuntzak: "Gainerako orduetarako, ikastetxeari nolabait esaten zaiona da: dituzuen baliabideekin zuek moldatu, eta horrek esan nahi du hezitzailea ez dagoen orduetan adibidez libreago dagoen irakasleak lagundu beharko duela, eta ikastetxe txikietan beti ez da posible. Ikastetxeak ere babestu zuen hezitzaile osoaren beharra, baina Hezkuntza Delegaritzak ezetz erantzun zuen. Erreklamazioa jarri genuen, fisioterapeutaren txostena gehituz-eta, baina berriro ere ezetz. Azkenean, abokatu batekin harremanetan jarri eta idatzia egin dugu, helegiteei ekingo diegula azalduz, Arartekora joateko asmoa ere banuen, eta orduan bai, ebaluazio pedagogikoa egin diote haurrari eta ondorioztatu dute Olaiak hezitzaile osoa behar duela. Aurretik, alabaren profila irakurri eta paper batean oinarrituta hartu zuten erabakia, tematu naizelako aurrez aurreko ebaluazioa egin dioten arte". Garbi du Elena Arroyok: zarata egin dutelako konpondu da beren kasua, baina hurrengo urteetarako "laguntza hau ez da errepikatuko. Urtero horrela aritu behar gara, eskean ariko bagina bezala, eta umeak behar duena lortzen badugu, sekulako mesedea egin baligute bezala tratatzen gaituzte, haurraren eskubidea denean". Ez dago dudarik, desgastea handia da, familia guztiak ez daude etengabe borrokatzeko prest, ez dira gai, bidean nekatuta amaitzen dute... "eta administrazioak hori aprobetxatzen du, nahi duena egiteko".

Ezkerrean, Ander. Goian, Olaia aitaren magalean bere familiarekin.

"AZKENEAN AMORE EMAN DUGU"

Susana Lopez ere emakume borrokalaria da. Ander 9 urteko semea autismo espektroaren barruan dago eta Irunen ikasgela arruntean aritu da beti, hezitzaileak lagunduta, harik eta duela bi ikasturte berritzegunetik –nolabait administrazioaren eta ikastetxeen arteko zubia dira berritzeguneak– proposatu zieten arte semea gela egonkorrera eramateko. Premia bereziko ikasleak baino ez dituzten gelak dira gela egonkorrak, gutxi gorabehera bost ikasle eta bat-bi hezitzaile, "eta haurra bertan izatea gela arruntean izatea baino merkeago ateratzen zaie. Sentiarazten dizute zure semea zama dela haientzat, gela arruntean mantentzeko baliabide asko behar dituela", baina gela egonkorrera eramateak Ander beste ikastetxe batera aldatzea esan nahi zuen eta gainera, gelak ez zituen konbentzitu: "Hori ez da inklusioa; profil oso ezberdineko haurrak ziren, dena nahasten dutelako, desgaitasunen bat dutenak zuzenean batera jartzen dituzte eta kito, eta semea gela arruntean jarraitzeko prestatuta ikusten genuen, mutiko lasaia da gainera". Familiak ezetz erantzun zion proposamenari, eta alternatiba bakarra eman zieten: Anderrek kurtsoa errepikatu beharko zuen. "Iaz errepikatu egin zuen eta gaizki pasa zuen, lagunak galdu zituen; eta ikasturte amaieran, proposamen bera: gela egonkorrera. Azkenean amore eman dugu, baina gutxienez Gautena elkarteko gela egonkorrera bideratu dugu". Gautena, izan ere, autismoan espezializatutako elkartea da.

> **"Gurasoek ez dute eskubiderik jakiteko semealabei zein laguntza esleitu zaien. Zergatik? Ikastetxeak gero puzzlea egin dezan, agian Amaiari zegozkion orduetako batzuk Ikerri emango baitizkiote"**
>
> Kattalin Ezkerra

GOSE GREBAN, ALABAREN ESKUBIDEEN ALDE

Raquel Garcíaren 7 urteko alabak ere autismoa du, sakona, eta hasieratik oso esperientzia txarra izan du Hezkuntza arloarekin, behar izan duen laguntza ez baitzaio eman, dio amak. Lehen Hezkuntzara iritsi zenean, berritzegunetik zuzenean esan zioten ezinezkoa zela haurrak ordutegi osoan hezitzaile bat izatea "eta ikusita gela arruntean baliabide nahikorik ez zuela izango eta nire alabak menpekotasun maila handiena duela, gutxienez gela egonkorra eskatu nuen Balmasedan, baina erantzun zidaten Enkarterrietan ez zela gela egonkorrik behar. Zergatik?

PAPER GAINEAN. "Alabaren profila irakurri eta paper batean oinarrituta hartu zuten erabakia, tematu naizelako aurrez aurreko ebaluazioa egin dioten arte", dio Olaiaren ama Elena Arroyok.

Ikasgela arruntean baliabiderik gabe mantendu eta gero zuzenean zentro berezietara bidaltzen zituztelako haurrak, gainetik kentzen zituzten". Sinadura bilketa arrakastatsua abiatu zuen Garcíak, premia bereziko ikasleen gurasoak biltzeko Lagundu NEE elkartea ere sortu zuen, salaketak prestatu zituen abokatuarekin, gose grebari ekin eta hedabideen arreta bereganatu zuen... "eta orduan bai, deitu zidaten: gela egonkorra jarriko zutela Sodupen. Eta hara, iaz ireki zuten eta aurten jada lau ikasle doaz bertara. Ez al zuten esaten beharrik ez zegoela?".

Kaltetuta dauden familiak asko direla dio Raquel Garcíak. Adibiderako, bi kasu aipatu dizkigu: "Duela gutxi, Getxoko Nuestra Señora de Europa ikastetxean behar bereziak dituen ikasle bat zentroa uztera gonbidatu dute, zentroaren maila jaisten zuela argudiatuta. Eta beste ikastetxe batean, bere kabuz hazka egiteko gai ere ez den ikasleari hezitzaile erdia jarri diote DBHn; gainerako orduetan hazkura badu ikaskideek hazka egiteko esan diote, baina adibidez komunera joan behar badu?". Etxetik ikastetxera joan eta etortzeko garraioari edota jangela orduei lotuta ere, seme-alabek nahikoa baliabide ez dutela kexu da hainbat guraso.

Beste ama batekin batera abiatu zuen Lagundu Enkarterriak elkartea 2017 bukaeran, baina EAE guztira zabaldu eta Lagundu NEE Euskadi bihurtu da ekimena: "Denbora gutxian, ehun familia baino gehiago batu zaizkigu, behar asko eta galduta dagoen familia asko dagoen seinale. Ezjakintasun handia dago, familiei gauza ugari ezkutatzen zaizkielako eta hainbatek sinetsi egiten dute Hezkuntzatik kontatzen dietena, edo ez dute arazotan sartu nahi, beldurra dute... Guk familiak informatzen ditugu, zein eskubide dituzten eta zer eta nola egin dezaketen".

> **"Hitz egiteko gaitasuna, geldi eta isilik egotekoa eta paper gainean lan egitekoa: horietakoren batean huts egiten baduzu, bazoaz gela egonkorrera. Lotsagarria da, sarri gakoa ez baita ikasleak ez duela gaitasunik zerbait barneratzeko, baizik eta ohiko bideetatik ez duela barneratzen"**
>
> K. Ezkerra

NOLA ERABAKITZEN DA IKASLEAK BEHAR DUEN LAGUNTZA?

Funtsean, baliabideen banaketa prozesua –haurrak hezitzailea, pedagogo terapeutikoa, logopeda... behar al duen eta zenbat orduz– kritikatzen dute familiek, hezitzaileek eta sindikatuek, hainbat arrazoirengatik. Batetik, haurrari zein laguntza esleitu paper gainean erabakitzen delako, formula matematiko baten bidez: berritzegunekoek ikaslearen informazioa sartu eta lortutako profilaren arabera zehaztuko du aplikazio informatikoak zenbat orduz dagokion laguntza ikastetxean, diote. "Haurra apenas ikusten duten, erabakia hartu behar dutenek", diote elkarrizketatuek. "Gainera, profilari dagokion ordu tartetik, ia beti gutxienekoa ematen dizute. Alabari 16-27

laguntza ordu zegozkion eta 16 eman zizkioten, baina beste ikasle bat egoera berean zegoenez, zer egin zuten? 16 ordu zati 2, bakoitzari 8 ordu. Ze logika mota da hori?", dio Raquel Garcíak.

Bestetik, Hezkuntzak amarrua egiten duela azaldu digute: ikasle bakoitzarentzat erabakitako ordu kopurua ez da publikoa, "eskatu dizkiogun arren, Jaurlaritzak ez ditu datuak ematen, gardentasun falta handia da", diote ELAtik, eta erabakitako orduak –haurrari beharrean– zuzenean ikastetxeari esleitzen zaizkio, ikastetxeak banatu ditzan. Horren atzean ezkutatzen dena garbi du Kattalin Ezkerra hezitzaileak: "Baliabideen banaketaren protokoloan espreski jartzen du informazio hori ez zaiela gurasoei emango; gurasoek ez dute eskubiderik jakiteko beren seme-alabei zein eta zenbat baliabide esleitu zaizkion. Zergatik? Ikastetxeak gero puzzlea egin dezan, dituen beharren arabera, eta agian Amaiari zegozkion orduetako batzuk Ikerri emango zaizkio, jarrera zaila duelako, nahiz eta beharbada premia bereziko ikaslea ez izan. Tranpa da, Amaiaren gurasoak ez daitezen kexatu".

Adibiderako, Gipuzkoako ikastetxe batean ikasturte honetan bertan gertatua: hezitzaile batek bi ikasle zituen onartuta; ikasle berri bat iritsi da bat -batean, premia bereziak ditu baita ere, eta lehentasuna eman diote administraziotik. "Hari dedikatu dituzuen baliabideak", adierazi diete. Alegia, hari dedikatu behar dizkio hezitzaileak orduak, besteak ordurik gabe utziz.

BAZTERKETA. "Gela egonkorretan ez dago inklusiorik, dena nahasten dutelako, desgaitasunen bat dutenak zuzenean batera jartzen dituzte eta kito", kritikatu du Anderren ama Susana Lopezek.

ENBARAZU EGITEN BADUZU, GELA EGONKORRERA

"Europan joera da ikastetxe bereziak eta gela egonkorrak desagertzen joatea, benetako hezkuntza inklusioa lortzeko, eta hemen sistemak ere hori saltzen du, baina askok gela egonkorretan bukatzen dute gurean, maiz gurasoak presionatzen dituztelako, 'edo gela egonkorrera pasatzen duzu seme-alaba, edo ez du nahiko laguntzarik izango gela arruntean'", dio Elena Arroyok. Entzumen urritasuna daukaten ikasle gehienak ere Taldekatze Eskoletara bideratzen dituztela salatu du Steilasek, "familiei eskola aukeratzeko askatasuna ukatuz".

Muinean, ikasgela arruntetan sakonagoa behar du aldaketak, Kattalin Ezkerra hezitzailearen iritziz: "Batez ere 3. mailatik aurrera, irakaskuntzaren formatua da ikasle guztiak mahaian eserita irakasleari begira jartzea, ariketak eta zuzenketak aldi berean egiten. Ez da aniztasuna kontuan hartzen, eta guk egin behar izaten duguna da gure ikasleekin egoera horretara ahal dugun moduan egokitu. Badira irakasleak espazioak eta irakas-moduak berrantolatzen dituztenak ikasle guztiak iritsi daitezen informaziora, baina erabaki pertsonalak dira, borondatez hartuak, sistema kontrako norabidean doa: adababakiak jartzen doa, eta adababakiek balio ez dutenean, gela egonkorretara bidaltzen dituzte ikasleak. Haur asko eta asko dira sistema horretatik kanpo geratzen direnak, eta oso bazterrean gelditzen direnak, horiek beste gela batera eraman eta kito, hori bazterketa da, ez inklusioa. Gipuzkoan adibidez gela egonkor pila bat irekitzen ari dira eta ikasgelan enbarazu egiten duen ikaslea horietara bideratzen dute. Batzuk gela egonkorrean hobe daudela? Bai, baina nik izan ditut ikasleak, gela arruntean lasai asko egon zitezkeenak, eta joera izan da gela egonkorretara bideratzea. Praktikan, gela arruntean mantentzeko ikasleei eskatzen zaie: hitz egiteko

M. G. I.

ANIZTASUNA. Irakasteko moduak eta espazioak birpentsatu behar direla uste dute Eba Gomez (ezkerrean) eta Kattalin Ezkerra hezitzaileek. "Hezkuntza sistemak ez du aniztasuna kontuan hartzen, haur asko dira sistematik kanpo geratzen direnak, eta oso bazterrean gelditzen direnak, horiek beste gela batera eraman eta kito". Beheko irudian, Lagundu Euskadi elkartearen kartela.

gaitasuna, geldi eta isilik egotekoa eta paper gainean lan egitekoa. Horietakoren batean huts egiten baduzu, bazoaz gela egonkorrera. Lotsagarria da, sarri gakoa ez baita ikasleak ez duela gaitasunik zerbait barneratzeko, baizik eta ohiko bideetatik ez dituela barneratzen, eta behar dituzu bide berriak pentsatu eta asmatu".

HEZITZAILEAK, ZAMATUTA

Gurasoen kritikak berresten dituzte hezitzaileek: premia bereziko ikasleentzat dagoen laguntza ez da nahikoa, eta murrizketak dira horren errudun: "Garai batean hezitzaile bakoitzak gehienez hiru ikasle izan genitzakeen, orain sarri bostekin aritzen gara, pentsa zein kalitate eskain diezaiekegun", dio Eba Gomezek. "Hezitzaile kopuru antzekorako ikasle gehiago dago, eta beraz denbora gutxiago eskaini diezaiekegu, gainera egunean zehar ikasle batetik bestera ibili behar dugu, haientzat eta guretzat horrek sortzen duen aztoramenduarekin, eta gure helburuak beste batzuk badira ere, egungo ereduan sarri gure lana bihurtzen da kontentzio lan bat, eustea ikasleari, 'ez dezala enbarazu gehiegi egin ikasgelan'", azaldu digute Gomezek eta Ezkerrak.

> **"Hezitzaileon helburua da ikaslea ahalik eta autonomoena izatea, gure laguntzarik behar ez izatea. Arazoa da administrazioak laguntzak kentzen dituela ez irizpide horren arabera, dirua aurrezteko baizik"**
>
> Eba Gomez

Berez, hezitzaileen helburua da ikaslea ahalik eta autonomoen izan dadila lortzea, gutxinaka languntzarik behar ez izatea... "baina arazoa da administrazioak laguntzak txikitzen edota kentzen dituela ez autonomiaren irizpidea erabilita, dirua eta baliabideak aurrezteko baizik, eta abiapuntu horrekin laguntza behar duen hainbatek ez du nahikoa laguntza jasotzen", gehitu dute.

Curriculum egokituak ere kritikatu ditu Ezkerrak, alegia behar bereziak dituen ikaslearentzat prestatzen diren eduki egokituak: "Batzuetan ikaslearentzat errazegiak dira, egin dezakeenaren azpitik jartzen dira helburuak, eta apropos egiten da horrela, denak eroso egoteko; ez dago haren etorkizunarekiko itxaropenik".

TALDEAREN INDARRA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kasuak hartu ditugu adibide, baina elkarrizketatuek kontatu digute Euskal Herri osoan dela txarra premia bereziko ikasleen egoera. "Pentsa, Ipar Euskal Herrian, ikasle hauekin lan egiteko administrazioak dituen irizpideak dira epe luzeko langabezian egotea eta emakumea izatea! Eta ez zaie ez titulaziorik ez ezer eskatzen", salatu dute LABetik.

Lagundu elkartean ez daude geldi, gero eta jende gehiago ari da batzen eta badakite taldearen indarra funtsezkoa dela, babes horrek ematen diela familiei kemena, seme-alabentzako onena aldarrikatzen jarraitzeko. Ikasturte honetan, mobilizazio handi bat antolatzeko asmoa dutela kontatu digute, premia bereziko ikasleak aintzat hartuko dituen hezkuntza ereduaren alde. Borrokatzeari ez diotela utziko argi baitute familiek. ●

Haur Hezkuntzako jardunaldiak

azaroaren 15ean BILBON eta 16an DONOSTIAN

Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako jardunaldiak antolatzen ditu Hik Hasik urtero. Aurtengoak TXIKITAKO BELDURRAK izenburupean egingo dira

Hizlarien artean izango dira MYRTHA CHOKLER, JON ARANA eta KATTY HOMAR psikomotrizistak eta ALEXANDER BARANDIARAN MUko HUHEZIko irakaslea

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus

MUNDU BIRAREN V. MENDEURRENA OSPATZEKO

Zeri egin behar genioke uko?

Getariako biztanle gehienek Joan Sebastian Elkano miresten eta bere egiten dute, herri baten adimena, irmotasuna eta ausardia adierazteko. Haientzat, balio horiek funtsezkoak izan ziren munduaren zirkumnabigazioa gauzatzeko eta, nolabait, Getariaren izena epika unibertsalean jartzeko. Horren aurka ez dago ezer esateko, tradizio batek eskatzen duen sintesi narratiboa da. Ezaugarri positiboak irudikatzen dituen orbanik gabeko mito bat da, zeinaren funtzioa zen, itsasoari lotutako komunitate txiki baten bizimodu sakrifikatuak eta gogorrak aurrera eramaten laguntzea.

MIGUEL A. JIMENEZ

Nortasuna eraikitzeko modu horrek nolabaiteko legitimitatea du, ikuspegi horretatik, mitoaren eta errealitatearen artean bereizten baldin bada. Elkanoren garaikide diren getariar gehienentzat tokiko nobleziaren ordezkariak –eta Elkano horixe zen– ez zeuden pertsona miretsien eta maitatuenen artean, hain zuzen.

Egiazko Joan Sebastian Elkanoren eta zirkumnabigazio haren historiak, ordea, beste ñabardura batzuk ditu, eta historialaria, ezagutza historikoa eraikitzeko, behartuta dago gertakizun haiek testuinguruan jartzera, galdekatzera eta panoramika osoa eraikitzera esparru kategoriko eta kontzeptual batean, zeinak balio-judizioak ere ez baititu baztertzen, behin gertaeren zergatien sekuentzia amaituta.

Arazoa da diskurtso historiko gehienek, euskal erakundeek zein Espainiako Estatuak sustatu eta babestutakoek, uko egiten diotela arakatzeari Elkano bezalako gizonek egindako inbasio *zibilizatzaile* haiek egungo globalizazio-ereduarekin lotzen dituzten harietan. “Ekintzaile”, “ameslari” edota “mundu mailako merkataritza posible egin zutenen” gisara aurkezten dizkigute konplexurik gabe.

Bosgarren mendeurrena, beraz, boterearen beste kultura-tresna bat da, pertsuasiorako mekanika batean txertatua, eta balio hierarkia bat elikatzen du, non azaleko ezagutzak nagusitzen diren. Orduan gertatutakoak analizatzeko “mundializazioa” edo “modernizazioa” bezalako kategoriak erabiltzean, historiari, prozesu gisa ulertuta, uko egiten dion diskurtso bat eraikitzen dute. Adibidez, “kolonialismo” kategoriari uko egiten diotenean, funtsezko faktore bat ezkutatzen ari dira: Europa, bere konkista- eta menderatze-logikarekin, XVI. mendean hasi zen gainerako herrien bilakaera-prozesuak bere helburuen mende jartzen, eredu eta kontakizun bat eta bakarra ezarriz.

Historialari batzuk intelektual organiko bihurtu dira eta, Manuel Vázquez Montalbán jakintsuaren hitzetan, Errege Etxearen hornitzaile ere bai (Ajuria-enea ere esan beharko genuke). Botereak finantzatu eta sustatutako kultur paradigma horrek saritze- eta aitortza-mekanismoak jartzen ditu abian, instituzionalak zein akademikoak, eta horietan, sustapen-sistemek autozentsura zuritzaile modu jakin batzuk behar dituzte.

Elkanoren goraipamena, duela ehun urte bezala, Borboien monarkiaren eta beren lurralde batasunaren legitimitate-krisi sakoneko testuinguru batean gertatzen da, eta itxura esperpentikoa hartzen du Espainiako Defentsa Ministerioaren eta Kultura Ministerioaren

Getariako Elizako abesbatzako kideak eta Espainiako Erregea, Madrilen Elkanoren Mundu Bira omentzeko erakusketa baten inaugurazioan. Argazkia: VCentenario.es

eskutik: gazteentzako komiki batekin eta animaziozko film batekin, *Disney* edo *Mingote* erako kontakizun bat eraikitzen eta dute. Indigena *basati ona* bezala tratatzean, bulkada neokolonial hori ikusten da. Hala ere, "18 heroiak" Sevillara itzuli zireneko falazia handia bere egiten dute, nahiz eta, egiatan, gutxienez beste hiru pertsona gehiago iritsi ziren, esklabo hartutako hiru indigena. Horietako batek, Manuel izena jarri ziotenak, gerora ondo ulertu zuen Gaztelako diruaren eta espezien balioa. Baina Manuelek modu enpirikoan eskuratutako ezagutza komertzial horiek Kontratazio Etxeko ofizialak asaldarazi zituzten, eta horregatik atxiki egin zuten, eta ez zioten itzultzen utzi Garcia Jofre de Loaisa prestatzen ari zen espedizioan. Gehiegi ikasi zuen gizona, antza.

Espainiako ministerioek babestutako kontakizun hauetan, bada beste sakrifikatu handi bat, lekuko deseroso bat: Antonio Pigafetta. Bitxia bada ere, espedizioaren kronikagilea izan zena soilik "abenturazale" gisa aurkezten dute Defentsa Ministerioaren komikian; historialari ofizial askok espedizioaren kronistari dioten mespretxu sakonari jarraiki. Pigafettak, bidaiaren bere kroniketan, elementu epikoak eta loriazkoak desegiten dituelako, espediziokideen indarkeria eta miseriak agerian utziz.

Urtebete da Josep Fontana historialari handiak utzi gintuela, baina abiatu aurretik, kapitalismoaren garapenari eta haren mitoei buruzko lan sintetiko eta didaktiko bat oparitu zigun (*Capitalismo y Democracia 1756-1848. Cómo empezó éste engaño*, Crítica, 2019). Komeni da irakurtzea, iraganarekin lotzen gaituzten logikak eta hariak arakatzeko, orain ezkutatu nahi dizkiguten horiek. T.S. Eliot-en poetika baliatuz, historialariak izan behar duen begirada ilustratu zuen Fontanak:

Hartzen ez dugun korridoretik
Irekitzen ez dugun aterantz

Elkano jaiotzen ikusi zuen herrian, bitartean, mitoaz harro egoten jarrai dezakete, baina garrantzitsua litzateke herriko oroimen kolektiboari haragizko eta hezurrezko heroiak gehitzea: Izaro Lestayo, Getariako traineruko patroia, arauak aldatzeko borrokan ari da Kontxako Banderan lehiatu ahal izateko bere herriko arraunlarien kapitain. Hor, benetako nortasun-ezaugarri bat dago. Zaintzea merezi duena. ●

Winnipeg

ITSASONTZIAREN ETA HAURTXOAREN HISTORIA

Duela 80 urte *Winnipeg* itsasontzia Valparaison lehorreratu zen gerratik ihesi zihoazen 2.100 errefuxiaturekin. Tartean zen Agnes America Winnipeg, Barakaldo eta Abanto atzean utzi eta Andeen itzalpean beste bizitza bati ekin behar izan zion senar-emazte euskaldun baten haurtxo jaio berria.

MAURO SARAVIA

1939an Parisen zen Pablo Neruda poeta txiletarra, kontsul lanak egiten. 1936ko Gerratik ihesi joandako milaka errepublikarrek Frantzian jasaten zituzten baldintza miserableen aurrean, ekintzara pasatzea erabaki zuen, eta Txileko Gobernuari finantzazioa eta baliabideak eskatu zizkion. Erronka pertsonal bihurtu zen krisi humanitario hori konpontzea.

Baina Txilen lurrikara ikaragarri bat sufritu berri zuten eta Pedro Aguirreren gobernua ez zegoen laguntza emateko prest, hegoaldeko hiri batzuk erabat suntsitu baitziren. Nerudak ez zuen etsi eta, Delia del Carril bikotekidearekin, Hego Amerikako eta Europako beste herrialdeetara jo zuen laguntza eske; Argentina nahiz Uruguaiko hirietan barrena ibili ondoren errefuxiatuak barkuz Txilera garraiatzeko dirua lortu zuen.

Frantziara itzuli bezain laster *Winnipeg* itsasontzia alokatu zuen eta erbestean zegoen Espainiako Gobernu Errepublikarraren bidez elkarrizketak egiten hasi ziren Txilera nor eraman aukeratzeko. Eskulan kualifikatua behar omen zen, hori zen Nerudak erabilitako trikimailua txiletar kontserbadoreek bere proiektua arriskuan jar ez zezaten.

Itsasontzia 1939ko abuztuaren 4an abiatu zen Bordeletik 2.100 lagun zituela, eta Panamako kanala igaro ondoren hegoaldeko hemisferiorantz egin zuen, abuztuaren 26an Arican porturatzeko, Txile iparraldean. Galiziar arrantzale multzo bat utzi zuten bertan eta aurrera jarraitu zuten Valparaisoraino: irailaren 3an iritsi ziren Pazifikoko portu garrantzitsu hartara. Errefuxiatuen artean 600 inguru han geratu ziren, baina gainerako guztiek trena hartu zuten Santiagoraino eta bidean txiletarrek heroiak bezala hartu zituzten. Hainbesterainokoa izan zen ongi etorria, ezen bi orduko bidaia izan behar zuena sei ordukoa bihurtu baitzen.

"Kritikak borratu dezala ene poesia guztia, nahi badu. Baina gaur gogoan dudan poema hau inork ezin izango du borratu", errezitatu zuen Nerudak *Winnipeg* eta bere bidaiaz. Errepublikar erbestearen historian errefuxiatu gehien eraman zuen itsasontzia bilakatu zen.

WINNIPEG IZENEKO HAURTXO BAT

Winnipeg itsasoratu eta bi egunera, Finisterreko lurmuturraren parean eskifaia egoera oso berezian aurkitu zen: emakume bat berehala erditzear zegoen. Piedad Bollada zen, Barakaldoko herritarra, eta alboan zuen Eloy Alonso senarra, Abanto-Zierbenakoa. Halaxe jaio zen Agnes America Winnipeg izeneko neska txikia.

Zergatik hiru izen horiek?
Jaio nintzen momentua oso berezia izan zelako. Itsasontziko kapitaina nire gurasoengana hurbildu zen eta galdetu zien ea bere emaztearen izena jartzea nahi zuten, Madrilen hil baitzen Francoren obus batek jota, Agnes. Nire gurasoek baietz, ez baitzeukaten oraindik izenik erabakita. Gero pentsatzen hasi ziren: "Zergatik ez diogu America ere jartzen? Harantz goaz...", eta azkenik Winnipeg erantsi zioten izenari, itsasontzian jaio nintzelako.

Itsasontzian bertan jaio zinen orduan...
Bai, itsasontzi ezaguna, ederra... "Esperantzaren barkua" deitzen zioten, Txilera eraman baigintuen. 1939ko abuztuaren 6an jaio nintzen, Bordeletik irten eta bi egunera. Hasiera batean frantziar bezala inskribatu ninduten, itsasontzia bandera horren pean zegoelako, baina behin lehorrera jaitsita txiletar naziotasuna eman zidaten.

Zure gurasoek zer kontatu zizuten itsasontzian bizitakoaz?
Bizipen ona izan zen haientzat, barkuan ondo zeuden, inola ere ez kexatzeko moduan. Euskal korua zegoen, baita koru katalan bat ere, eta denei alaitzen zieten bizitza. Anaiak zortzi urte zituen eta gogoan du protesta egiten zuela dilistak ez zitzaizkiolako gustatzen haien tartean harriak azaltzen zirelako... pentsa! Sekula ez zen jakirik falta izan.

Winnipegen mila izenak

1918an Dunkerquen eraikia, hasieran *Jacques Cartier* izena jarri zioten eta meteorologia datuak biltzeko erabili izan zen itsasontzia. 1930ean *Winnipeg* jarri zioten izena eta 1939an alokatu egin zuten errefuxiatuak garraiatzeko. Txilera iristean jabetza eskuz aldatu zen salaketa judizial baten ondorioz eta Bigarren Mundu Gerran Frantzia okupatuko Vichyren gobernu kolaborazionistak erabili zuen *SS Paimpol* izenarekin. Baina 1941ean belaontzi holandar batek harrapatu eta britainiar gobernuak konfiskatu egin zuen. *SS Winnipeg* berrizendatu zuten. 1942ko urrian hondoratu zuen urpeko-ontzi alemaniar batek. Baina Agnes America Winnipegek (irudi handian) darama bere izena eta oroimena.

EUSKARALDIAREN IKERKETA
"USURBILGO EMAITZEN AURKEZPENA"
azaroak 6, ASTEAZKENA,
18:00 Potxoenean DOAN

DANTZA
"ORBEL JAUZIA emanaldia"
Orbeldi Dantza Taldea
azaroak 8, OSTIRALA,
19:30 Sutegi SARRERAK*

KONTZERTUA "IZAKI GARDENAK"
azaroak 10, IGANDEA,
19:00 Sutegi SARRERAK*

KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA
"Maialen Lujanbio eta Igor Elortza"
azaroak 9, LARUNBATA,
12:30 Mikel Laboa plazatik
BAZKARI-TXARTELA*

SOLASALDIA "Josune Arakistain, Huntza taldeko abeslaria"
azaroak 12, ASTEARTEA,
19:30 Sutegi DOAN

POESIA ERREZITALDIA
"Ugaitz Agirre-ren poesia"
azaroak 15, OSTIRALA,
19:30 Sutegi DOAN

ANTZERKIA "Tabernaria"
azaroak 16, LARUNBATA,
20:00 Sutegi SARRERAK*

PELIKULA "AGUR ETXEBESTE"
azaroak 17, IGANDEA,
19:30 Sutegi SARRERAK*

*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Txirristran, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan. Noaua!ko bazkideekprezio berezian Noaua!ko egoitzan aldez aurretik. *BAZKARI-TXARTELA: Bordatxon, Noaua!n eta Aitzagan salgai soilik.

Agnes America Winnipeg jaio berritan, itsasontzian ateratako argazkian.



Ezkerrean, Kapitainak sinaturiko dokumentua Valparaison jaiotza agiria lortzeko.

Eskubian, Piedad Bollada eta Eloy Alonso gurasoak, zahartzaroan Euskal Herrira egindako bidaia batean.

Anaiarentzat ez zen garai gozoa izan hala ere.
Justo izena zuen eta Frantziara bidali zuten gerra betean. Han denbora dezente egon zen, hiru urte inguru. Amak baimena lortu zuen kontzentrazio esparrutik irteteko eta segituan bere bila hasi zen. Asko kostatu zitzaion aurkitzea, haurrik gabeko senar-emazte batzuen eskuetan zegoen.

Zein kontzentrazio esparruz ari zara?
Argelès-sur-Mer (Ipar Katalunia). Esparrua bisitatzera joan nintzen eta oso emozionantea izan zen. Anaiarekin han ingurutik gindoazen autoz eta halako batean herriaren izena ikusi nuen: "Geldi, geldi!" esan nuen, eta anaiak: "Zer gertatzen da?", "Ez al duzu kartela ikusi? Hemen izan ziren gurasoak kontzentrazio zelaian!". Orain hondartza eder bat da, etxe eta txalet politekin. Hondarretan esertzean malkoak irteten zitzaizkidan, aita eta ama hor egon zirela pentsatzea ere…

Orduan ez zen hain polita izango.
Gizonek hondarretan zuloak egiten zituzten eta manta batekin tapatzen ziren hotzetik; haur eta emakumeak egurrezko barraka batzuetan edukitzen zituzten, etzateko ez zuten lastoa besterik.

Nola izan zuten itsasontziaren berri?
Zerrenda bat osatu zen, askoz gehiago ez dakit. Bordelera joan eta han abisatu zieten barku batek zegoela Frantziatik aterako ziena.

Eta Txilera iristean, zer esan zieten?
Denok zerrendaren arabera geunden erroldatuta eta jaitsi zirenean segituan ihardetsi zieten: "Hiru igo zineten eta lau jaitsi, zergatik?", amaren erantzuna: "Hau nire alaba da, kontrabandokoa".

Orduan eskuzabal hartu zintuzteten. Zer iruditzen europar herrialdeen jokabidea gaurko errefuxiatuekiko?
Izugarria iruditzen zait aterperik ez ematea, guri hemen, Txilen eman ziguten bezala. Hainbeste heriotza, hainbeste gorroto… Ateak ireki behar dira herrialde guztietan. ●

«KOMUNA DA VENEZUELA KRISITIK ATERATZEKO BIDEA»

Cira Pascual eta Chris Gilbert

Venezuelako El Maizal komunako kideak

Cira Pascual Marquina eta Chris Gilbert Venezuelako prozesu bolibartarrari burubihotza emanda ari diren bi militante internazionalista dira. *Escuela de Cuadros* formazio politiko marxistako telebista saioa zuzentzen dute, irakasleak dira Venezuelako Unibertsitate Bolibartarrean, eta Venezuelako komunekin egiten dute lan. Euskal Herrian izan dira El Maizal komunaren aldeko kanpaina jendarteratzen. Beraiekin elkartzeko aukera baliatu dugu komunen izaera iraultzaileaz, lorpen eta gabezia praktikoez solasteko, baita gobernuaren eta komunen arteko "elkarlan-tentsio" harremanaz ere.

ZIGOR OLEAGA DANI BLANCO

Hamahiru urte daramatzazue Venezuelan bizitzen. Zerk eraman zintuzten hara?

C. Gilbert: Venezuelan finkatu aurretik, gure militantzia esparru erdi anarkistan erdi autonomistan garatu genuen, zapatismoarekiko gertutasuna genuen... Eta Chavez heldu zen. Nire kasuan Chavezen satanizazioaren ondorioz pentsatu nuen: "Hara, hor egiazko zerbait ari da gertatzen". 2006an sustraitu aurretik pare bat bisita labur egin genituen, eta chavismo barneko sektore marxistekin harremana izan genuen. Chavismo horrek formatu gintuen.

Zer dira eta zergatik jartzen dira martxan komunak Venezuelan?

C. Pascual: Proiektu bolibartarra jaio zen urtetik jendartearen demokratizaziorako proiektua dela ulertzea gakoa da. Chavezek demokrazia protagonikoaz eta demokrazia zuzenaz hitz egiten zuen 1991n jada.

Komunari lotuz, 2006an Chavezek jendarte sozialistaren eraikuntza aldarrikatu zuen. Venezuelako sozialismoaren eraikuntzan hainbat urrats dago. Bat alderdiaren eraketa da, baina demokratizazioaren ikuspegitik ez da hain interesgarria. Beste bat kontseilu komunalen sorkuntza izan da. Espazio horietan 50 eta 300 familia artean daude antolatuta, demokrazia zuzenaren bitartez asanbladetan erabakiak hartzen dituzte hirigintzaren esparruan, eskolarenean... Estatua behartuta dago komunitateak erabakitzen duena betetzera. Garrantzitsua da, baina ez ditu produkzio harremanak ukitzen, ez du logika kapitalista apurtzen halabeharrez. Eraldaketa politikoa da soilik.

Komunak dira ekonomiarako jauzia egiteko hurrengo urratsa?

C. Pascual: 2009an Chavezek komuna proposatu zuen berrantolaketa politiko eta ekonomikorako. Komuna hainbat kontseilu komuna-

len batuketa da, normalean hamar edo hamabi, lurralde jakin bati loturikoak. Komunaren erdian jabetza soziala dago, guztiona. Komunitateak asanbladan erabakitzen du zer produzitu, nola, zer egin soberakinekin. Espazio horietan bestelako harreman sozialak garatzen dira. Jada ez da soldatapeko esplotazioa oinarria. Politikaren demokratizazioa dago, baita ekonomiarena ere, jendarterena oro har. Eta ideia da komuna bihurtzea Venezuelako jendartearen oinarrizko zelula. Komunen elkarketak hiri komunalak sortuko lituzkete, hortik estatu komunaletara [gure probintzien parekoak], Venezuelako Estatu Komunalera heldu arte.

C. Gilbert: Komunek komunalismo indigenan dute sustraia, baita autoantolakuntzarekin erlazioa duten aurretiko esperimentuekin ere: kontseilu komunalak, uraren mahai teknikoak... Baina nazioarteko sozialismoaren eraikuntzarentzako ekarpena da komuna. Sozialismo errealari Istvàn Mèszàros-ek [filosofo hungariarra, 1930-2017] eta Chavezek egin zioten kritika du oinarri. Mèszàrosek kapitala eta kapitalismoa ezberdintzen zituen: Sobietar Batasunaren moduko erregimen poskapitalista bat izan dezakezu, baina kapitalaren metabolismoak iraun dezake. Lanaren antolaketa hierarkikoaz eta antidemokratikoaz ari da, soldatapeko lanaz... Mèszàros eta Chavezen ideia zen metabolismo hori hasieratik aldatu beharra zegoela, lantokitik bertatik hasita.

C. Pascual: Denok izan gara zapatista eta noski babesten ditugu zapatistak, baina zapatismoak ez du helburu estatu sozialista eta herrikoi baten eraikuntza. Chavismoak bai, boterean herri-bloke bat sendotu nahi du. Ez du soilik baldintzak behetik eraikitzen joan nahi, baita goitik ere. Estatua eta komunak, joan-etorriko harremanean. Chavezek zioen komunek ezin zutela irla sozialistak izan itsaso kapitalista batean.

Ezkerreko gobernuen eta haien oinarrien edo herri mugimenduen arteko harremana beti da korapilatsua. Ohikoena behean jarrera erradikalagoak agertzea da, eta gobernuan posibilistagoak. Venezuelak bestelako esperientziak agertzen ditu? Komunak gobernutik prozesua eta herritarrak erradikalizatzeko saiakera ematen du.

C. Gilbert: Oso zaila zaio askori venezuelarren antolatzeko moduak ulertzea: antolakuntzarik gabeko masa bat dirudi, baina ez da horrela, antolaketa modu propioak ditu. Chavezek nolabaiteko abangoardia osatzen zuen, baina herriak behetik bultzatu zuen. Herri boterea sustatzeko lan egiten dutenek maiz uko egiten diote estatu botereari. Baina herri boterearen norabidean esperimentu interesgarrienak Estatuaren babesarekin egin dira. Egoera interesgarria da, batzuetan harremana antagonikoa bada ere.

> *“Komunaren erdian jabetza soziala dago, guztiona. Komunitateak asanbladan erabakitzen du zer produzitu, nola, zer egin soberakinekin”*

C. Pascual: Prozesu bolibartarraren unerik onenetan ere elkarlan-tentsio harremana zegoen herri boterearen eta gobernu-estatuaren artean. Baina elkarlanaren esparrua oso garrantzitsua izan zen. Komuna produkzioaren autoantolakuntza ere bada, lantegia behar duzu ekoizteko, traktoreak, lurrak... Dimentsio horietan estatuaren babesak garrantzia irabazten du.

El Maizalen adibidez, 2008tik aurrera komuneroak lurrak bereganatzen hasi ziren: lur-jabe handien lurrak, baina baita estatuak landu gabe zituenak ere. Estatuaren eta komuneroen artean gatazka sortu zen. Baina estatuak atzera egin behar izan zuen, 2001ean herritarrei erabili gabe zeuden lurrak okupatzeko eskubidea ematen zien lege baten bitartez. Gero, 2009an komunen legea ezarri zenean, El Maizalek estatuak emandako erreminta hori erabili zuen bere burua indartzeko. Konfrontazioa sortzen da autoantolakuntza herritarra estatua onartzeko prest dagoena baina harago joaten denean.

Batzuek diote aurretik borroka eta autoantolakuntza bizirik zeuden lurraldeetan eman dituela fruituak komunen legeak, baina ez besteetan.

C. Gilbert: Esango nuke bi komuna direla egun arrakastatsuenak: El Maizal eta Caracaseko 23 de Enero auzoko El Panal. Biak praktikan legearen aurretik existitzen ziren. El Panalekoan legearen aurretik hartu zuten komuna izena. Iraultza ez dute legeek egiten, pertsonek egiten dute.

Hamar urte pasa dira Komunen legea onartu zenetik. Asmoetatik harago, zer eman dute praktikan komunek?

C. Pascual: Balorazioa erabat positiboa da. Ez bakarrik markatzen duten helburu estrategiko iraultzaileagatik; taktikoki ere bai. Komunek erantzuna ematen diete eguneroko beharrei egungo krisi egoeran. Adibidez, El Panal komunak okindegia, ehungintza lantegia eta jantokia dauzka, besteak beste. Soberakinen parte bat eskolarentzako janaria erostera bideratzen dute. Eskola publikoa da, teorian otordu bat eman behar dute baina orain ez da heltzen. Komuna arduratzen da horretaz, eta horrek gainera eskola absentismoa murriztu du. Edo Altos de Lidise komuna: mediku txiletar batzuekin elkarlana garatu dute eta osasun arreta eskaintzen ari da.

Komunen errealitate orokorra al da hori?

C. Pascual: Funtzionatzen duten komunez ari gara. Benetan aktibo daudenak gutxi dira.

C. Gilbert: Chavismoan hainbat korronte dago, eta zoritxarrez nagusiak ez du komunekiko konfiantza handirik. Horien ustea da krisi larriaren eta etengabeko erasoen aurrean oso pragmatikoa izan beharra dagoela. Eta pragmatismoa

IÑAKI ETAIO

EL MAIZAL komunak ehunka lur hektarea ditu. Nekazaritza eta abeltzantza egiten dute komuneroek.

kapitalismoarekin lotzen dute, hori delako bide ezaguna. Baina guk uste dugu komuna dela krisiaren irtenbidea. Krisi aurreko chavismoaren 12 urteetan, petrolioaren prezioaren gorakada betean, harreman modu kapitalistak mantendu ziren. Ongizate estatua garatu zen, baina ez zen ekonomia dibertsifikatu, ez zen elikadura burujabetzarik lortu, eta gainera 500.000 milioi dolarrek herrialdetik ihes egin zuten. Hori da kapitalismoak dakarrena, bereziki mendeko estatu batean.

Chavezek gauza batean asmatu zuen: elkartasun harremanak ezin dira dekretuz inposatu, jendea limurtu behar da, konbentzitu. Emantzipazioa inposatzea *contradictio in terminis* bat da, baina akats hori egin izan du ezkerrak. Chavezen akatsa kapitalismoari ekonomian espazio gehiegi uztea izan zen, eta komunak baztertzen amaitu zuen.

C. Pascual: Noski, inork ez du gerra zibil bat nahi, ezta esku-hartze inperialistarik ere. Chavez saiatu zen proiektu eraldatzaile herrikoi bat bultzatzen, baina burgesiaren interesekin talka egin gabe. Hazkunde ekonomiko garaia zen. Baina burgesia asegaitza da.

> *“Bi komuna dira egun arrakastatsuenak. Biak praktikan legearen aurretik existitzen ziren. Iraultza ez dute legeek egiten, pertsonek egiten dute”*

Komunen esperientzia zertan izan daiteke baliagarria Euskal Herriari begira?

C. Gilbert: Mondragoneko esperientziak erakusten du komuna, sare kooperatiboa, oso handia izan daitekeela. Uste dut Mondragonen arazoa dela kapitalismoan murgiltzen amaitu zuela. Adibidez produkzio asko atzerrira atera eta harreman inperialistak sortu ditu. Produkzio autogestionatuak ez du zertan taberna edo jatetxe txiki bat izan behar. Ez dugu komuna txikitasunarekin lotu behar, ahalmenak mugatzea litzateke, eta produkzio handia kapitalismoaren eskuetan uztea.

C. Pascual: El Maizalek ehunka hektarea lur ditu, txerri haztegian garaiaren arabera 2.000 eta 10.000 txerri daude, negutegi asko du... produkzio agroindustriala da, jendearen beharrak asetzen ditu. Komunak handitzeko helburua izan behar du, lurraldeak irabaztekoa.

Komunen eta El Maizalen aldeko nazioarteko kanpainan ari zarete orain.

C. Pascual: *El Maizalentzako haziak* du izena kanpainak. Euskal Herriko hamaika elkartek eta herri mugimenduk babesten dute. Ekarpena haziak edo dirua emanez egin daiteke. Euskal Herriak aspaldidanik du sentsibilitate internazionalista handia. Venezuelaren aurkako erasoak daudenean kalera ateratzen da, eta asko eskertzen da. Baina une oso zaila bizi dugu, komuna da irtenbidea eta aurre egiteko elkartasun materiala behar dugu.

Cira, zu Pakito Arriaran fundazioko militantea zara. Nola ulertzen dituzue nazio askapen borrokak?

C. Pascual: Pakito Arriaran fundazioa herrien arteko elkartasunerako fundazioa da, joan-etorriko elkartasuna, aktiboa. Venezuelan kide euskaldun askok erbesteratu behar izan zuten, eta bada kontzientzia bat autodeterminazio eskubidearen inguruan.

C. Gilbert: Tradizio marxista klasikoek herrien autodeterminazio eskubidea babestu dute. Demokraziaren aldeko borroka bezala, baina sozialismoaren aldeko borrokatik bereiztuz. Chavezek ekarpena egin zuen, sozialismoa demokraziaren zabaltzea dela ulertuz. Nik uste dut autodeterminazioaren aldeko borrokak sozialismorako urratsak ere badirela. ●

GLORIA BEATRIZ PUC CHIQUITÓ

«Hezkuntza deskolonizatzen ari gara, hizkuntza landu ahal izateko»

Guatemalako ikastetxe publikoetan astean 80 minutuz ikasten dute maia familiako kaktxikelera hizkuntza. Horrela ezin hizkuntza ikasi. Gloria Puc hiriburutik gertu bizi da, eta kontatu digu hizkuntza eta maia nortasuna berreskuratzeko nola lau ikastetxe komunitario abian jarri dituzten. Garabide elkartearen bidez etorri da Euskal Herriko hizkuntza normalizazio prozesua ezagutzera. Aretxabaletan egon gara berarekin.

ONINTZA IRURETA AZKUNE DANI BLANCO

Lau ikastetxe komunitarioetarako irakasleak prestatu behar dituzue. Kaktxikelera ikasi beharrean dira, transmisioak kale egiten duelako.

Zoritxarrez, kaktxikelera ez da transmititzen. Hori gertatzeko faktoreak asko dira. Lau ikastetxe horietako bat, adibidez, hiritik gertu dago eta hurbiltasun horren ondorioz espainierak ordezkatzen du kaktxikelera. Barne gatazka gogorrak ere bizi ditugu, prozesu oso bortitzak ditugu hemen, hilketak gertatzen dira. Bestalde, gurasoek uste dute gaztelaniaz ikasten ez badugu ez dugula lanik aurkituko. Ohikoa da "Zertarako balioko digu hizkuntzak?" galdera egitea. Horrela pentsatzen dutenek halako mezuak jaso dituzte hezkuntza sistema arruntean, prozesu bortitzetan. Esaten zaigu Guatemalari gerta dakiokeen gauzarik txarrena garela maiak.

Diskriminatu gaituzte maia izateagatik, hizkuntza ez transmititzeko faktoreak oso indartsuak dira.

Irakasleak prestatzen lan handia daukazue.

Kontua ez da esatea, "irakats diezaiegun kaktxikelera irakasleei!". Izatetik abiatzen gara. Ni nor naiz maia bezala? Nola bizi naiz? Gure aitita-amamen jakintzak berreskuratu nahi ditugu, eta hala, irakasleak ez dira izango kaktxikelera irakasle soilak. Maitemindu daitezela beraien kulturaz, bihotzetik ezagutu dezatela zer den gure hizkuntza. Irakasleak akademikoki eta politikoki formatzen ditugu. Horrela, irakatsi diguten historia gainetik kendu ahal izango dugu. Hezkuntza deskolonizatzen ari gara hizkuntza landu ahal izateko. Ez da nahikoa esatea, "hitz egin dezagun kaktxikelera!". Bada kaktxikelera hitz egiten duen jendea, baina sistemak bezala pentsatzen du. Guk irakasleekin formazio historikoa eta politikoa lantzen ditugu.

Lau ikastetxe horietako batean murgiltze eredua osorik ezarri duzue.

3 urtetik 16 urte arteko ikasleak dituzte. Duela bost bat urte hasi ziren. Oso emaitza onak ematen ari da. Ikastetxe komunitarioa izan aurretik My Melody ikastetxea izan zen. Gaztelaniaz eta ingelesez ikasten zuten haurrek. Jabeek lurra eta eraikina utzi zituzten kaktxikelera irakatsiko zuen ikastetxea abiatzeko.

Ingelesa eta gaztelania? Gurasoek ez zuten alde egin eredua aldatu zenutenean?

Ingelesak indar handia hartu du Guatemalan. Ikasten baduzu, lana izango duzu.

Batzuek alde egin zuten, baina beste batzuek ez. Ez zuten ihes egin, zeren azaldu genien komunitatearen alde egingo genuela, gure nortasuna eta kultura berreskuratu nahi genituela. Metodologia aldetik oso aurreratuta dago, sartzen direnetik irteten diren arte kaktxikeleraz egiten dute, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

Beste ikastetxean %60 ikasten dute jatorrizko hizkuntzan.

Izaera desberdineko eskola da. Gizarte beharrak erantzutera bideratuta dago. Bat-batean etor daiteke ikasle bat eta ez jakin batere kaktxikelera. Aldiz, umeak politikoki ahaldunduta daude. Ahaldunduta esaten da gaur egun, ezta? [barrez ari da]. Arte eskola dute eta zaharren jakintzak eta musika ikasten dituzte. Guraso oso aktiboak dauzkate eta protestak direnean umeek gurasoei haiekin eramateko eskatzen diete. Marinbak, danborrak eta dortokak hartuta joaten dira haurrak. Neskak gure arropa eskatzen hasi dira. Galdua genuen gure janzkera eta garrantzitsua da, zeren hor erakusten da gure natura, unibertsoa, bizimoldea. Alabaina, diskriminazioagatik eta arrazakeriagatik arropa janzteari utzi diogu, zeren bestela hala esaten digute kalean: "Hara, hor doa indiarra!". Egoera oso gogorrak dira, errazagoa da haietako bat bezala bizitzea eta prakak janztea. Neskek amei azaldu diete zergatik nahi duten janzkera berreskuratu. Ehuleak ere gure ehunak aldarrikatzen hasi dira.

Beste bi ikastetxeak nolakoak dira?
Gurasoen %51k kaktxikelera hitz egiten du, eta aldiz, umeen %5ak daki hitz egiteko beste. Oso gutxi transmititu da. Abantaila da, hitz egiten ez badute ere, ulertzeko gai direla. Murgiltze eredua jarri nahian dabiltza. Horietako batean oztopo garrantzitsu bat dute, ez dute diru nahikorik nahi adina irakasle izateko. Egia esan, ikastetxe komunitario garen neurrian, denok ditugu arazo ekonomikoak! Ikastetxe bati udalak eskaini dio irakaslea. Hizkuntza badaki, baina sistemaren pentsamoldea du. Zerotik hasi behar dugu lanean horrelakoekin eta batzuk apatikoak dira gure bizimoldearekiko.

Gurasoak gustura daude lau ikastetxeekin?
Umeak etxera zein aldartetan doazen, agian hori da garrantzirik handiena duena. Haurrak zoriontsu dira eta motibatuta daude. Gauza onak kutsatu egiten dira. Estatuko ikastetxeetan berenera makurtzen dituzte, buruz ikasi eta ikasi. Gure haurrek ez dakite nor diren ere. Ikastetxe komunitarioetan izaten uzten zaie, bihotzetik abiatzen dira. Bihotzaren bidea aukeratzen duenak ez du hanka sartzen. Uste dut, izan nahi duguna aukeratu genuenean, ez genuela hanka sartu eta pozik bizi gara.

Gogoan dut, ikastetxe hauetako batean alaba matrikulatu zuen ama baten kezka. Esan zidan ez zuela eskola horretan sartu behar alaba, matraka ematen hasi baitzitzaion eta galdetzen ea zergatik ez zuen jatorrizko janzkera erabiltzen. Umea eskolaz aldatu nahi izan zuen, baina alabak ezetz eta ezetz. Poliki-poliki sentsibilizatu zen ama hura eta azkenean jatorrizko arropa janzten hasi zen. Bere arropa maitatzera heldu zen, bere kultura maitatzera ●

BABESLETZA:

Apezpikuaren prostituten hilerria

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Ingalaterra, 1129. Eztebe I.a erregeak haren anaia, Henrike Bloisekoa, Winchesterreko apezpiku izendatu zuen. Horrenbestez, besteak beste, Surrey konderriko Southwark auzunea haren jurisdikziopean geratu zen. Lehenago, Londresko agintariek prostituzioa eta haientzat moralki zalantzazkoak ziren beste jarduera batzuk Tamesis ibaiaz bestaldera mugitzea erabaki zuten, Southwarkera. Horregatik, auzoari *Liberty* esaten zioten, bertaratutakoek –eta ez sexu-langileek– ia edozertarako askatasuna zutelako.

Southwark ez zen Londresko eskumena, ezta Surreyko konderrikoa ere; Winchesterreko apezpikuak agintzen zuen bertan. Ia gehienetan bezala, garai hartako Ingalaterran ere, agintari moralek prostituzioa kondenatzen zuten eta agintari politikoek, aldiz, nabarmenki batzuetan, modu sotilagoan bestetan, baimendu egiten zuten. Henrikek bi aginteak hartu zituen beregain eta, gainera, anaiak pribilegio gehiago eman zizkion karguari: besteak beste, zerga gehiago ezarri zizkien Southwarkeko negozioei eta, beraz, prostitutei –*Winchester geese* esaten zieten, Winchesterreko apezpikuaren antzarak, alegia–.

Bere antzarei esker aberastu arren, haietako bat hiltzen zenean hilerrian –lur sagaratuan– ehorztea debekatu zuen apezpikuak. Gorpuak hobi komun batera botatzen zituzten. Cross Bones (hezur gurutzatuak) zuen izena ofizialki, baina herritarrek, eufemismoa erabiliz, "emakume ezkongabeen hilerria" esaten zioten. Hobia 1853an itxi zuten, baldintza kaxkarretan eta gorpuz gainezka.

1990eko hamarkadan, metroa zabaltzeko lanetan, 148 eskeleto aurkitu zituzten azaleko geruzetan. Sakontzen hasi eta orotara 15.000 gorpu daudela kalkulatu zuten: gehienak, haur jaioberriak, urtebetez azpikoak eta gaixotasun benereoak zituzten emakumeak.

Orube horretan bulego-eraikin bat egin nahi dute orain, baina hainbat herritarrek, John Constable idazlea buru, *Friends of Cross Bones* taldea sortu dute proiektuaren aurka egiteko. Hilerria hausnarketarako lorategia izatea nahi dute, gizarteak zukutu eta ondoren baztertukoak oroitzeko gunea. ●

ALLISON MEIER

CROSS BONES HILERRIKO HESIAN PLAKA OROIGARRI BAT DAGO, ANTZARA BATEN IRUDIA DUENA, SOUTHWARKEKO PROSTITUTEN OMENEZ. HESIA LOREZ ETA MEZUZ JOSITA DAGO.

Optogramak, azken argazkiak

1878an Wilhem Kühne (1837-1900) fisiologo alemaniarra XVII. mendean sortutako teoria bat frogatzen saiatu zen: ikusten duguna begian erregistratuta geratzen dela, plaka fotografikoetan bezala, eta hiltzen garenean ikusitako azken irudia gordeta geratzen dela. Untxi albino bati burua estali zion; gero, hiru minutuz leiho batetik begira jarri zuen eta lepoa moztu zion. Hainbat produktu kimiko erabilita, erretina errebelatu zuen eta lehenengo optograma lortu zuen (ezkerreko irudi "argigarria"). Gillotinan hiltzera kondenatutako gizaki batekin berdin egin zuen eta emaitza are ilunagoa izan zen. Optografiaren teoriak indarra galdu zuen, biktimak aurrez aurre erasotzen dituzten hiltzaileen zorionerako. ●

ATXEGA JAUREGIA
jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

HOSTO-BIDEA ETA HOSTO-TRUFA

Nire artikuluak irakurtzen dituzun bakoitzean gure etxeko atarian hosto-bide bat agertzen da.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Hogeita bost urte eta ehun eta hamazazpi egun igaro dira txoko honetan lehen atala argitaratu zenetik. Mila ehun eta hamaikagarrena duzu hau; bai, banaka-banaka, hamaika hamaikako eta 1111. Makina bat landareren kontu eta komedia ekarri ditut hona; eta ezin konta ahalako berbakizun eta iruzkin jaso izan dut ordainetan irakurle zaretenengandik. Denetatik izan da: askok loreak bota dizkidate; beste batzuek lorontziarekin jo didate lokian, danba! Denekin ni loreko jartzen nintzen.

Milaka lagunen eskuetan eta pantailetan, begietan egoteko asteroko baratze txoko hau ez diruz ordaintzekoa da. Ezkutuko maitalearen gisan hartzen dut irakurlea, zu; eta irrimurrika edo burlaizezko barrez edo algaraka sumatzen zaitut hemengoak leitzen.

Hosto-bide bat eratzen du irakurraldi bakoitzak. Luzaideko esaera da. Esaera eta prozedura, bidea, hosto-bidea. Gauez, hostoekin osatutako bidea eginez lotzen zituzten ezkutuan katramilatuta edo nahasita edo endredatuta eman-hartuan zebiltzan bi lagunen etxeen atariak; eta goizean hostoek argitara ateratzen zuten adiskideen isilgauzaren korapiloa. Hosto-bidea, polita e! Horrelakorik bizitu duenik gustura ezagutuko nuke, hosto-bidekoa.

Hosto-bideari hosto-trufa ere esaten diote. Bide horretatik kanpo dagoen jendearen trufa eta burla eragiten du hosto-xendrak. Izan ere denak inbidiatan, eta bekaizkeria estaltzeko burla eraiki, beti taldearen babesean. Hosto-trufa.

Trufa, baina, ez da soilik irria eta iseka. Trufa lurpeko onddo baten "fruitu antzekoa" ere bada, boilurra. Trufa patata ere bada, lursagarra (*Solanum tuberosum*). Trufa tupa ere bada, lantzeko lur kaskarrenetako bat. Tupa fruitua ere bada, ezpel-ttupina (*Buxus sempervirens*). Eta tupa dupa ere bada, upa, edariak eduki eta ontzeko zurezko ontzia.

Nire hauek irakurtzen dituzun bakoitzean gure etxeko atarian hosto-bide bat agertzen da. Hosto-trufa bat eraikitzen da: irri, boilur, fruitu, lursagar, lur sail zail eta upelkada sagardo. Izan ere gure ataritik zenbat bide abiatzen dira? Eta zenbat bidezidor datoz bertara? Hosto-bideak. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba
Lorategian haritz bat dugu. Itxura ona du (hosto bere ugarirekin) baina zutoinaren beheko aldean, lurretik hurbil, izerdia isurtzen ari da. Hiru urte atzerago zulagailu gorria aurkitu genuen bertan, eta dena garbi garbi utzi genuen. Ez dakit horren eragina izan ahal den.

Aitor

Argazkian ez da zehaztasun onenarekin ikusten baina itxura guztien arabera, haritz hori zauria sendatu ezinik dabil. Zauria sendatzea da izerdiaren bidez orbaindu eta ixtea. Beraz, izerdia ikustea ez da txarra, arazoa zauria luzez irekita egotea da. Nik zauria ondo garbitu eta begiratuko nuke ea hor zer dagoen-dabilen. Bestetik kontuz makinekin: belarra mozterakoan edo beste edozein lanetan makinak ez dezala azala ukitu. Horrek sor dezake orbain hori ere. ●

Bidali zure galdera:
jakoba@bizibaratzea.eus

NAFARROAKO ERRIBERAREN HISTORIA BARAZKI KONTSERBEN BIDEZ KONTATUA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nafarroako Erribera Garaian, San Adriango El Navarrico kontserba enpresaren lantegi zaharrean, museo berezia ireki zuten joan zen otsailean: Kontserbaren Museoa. Oso errotuta egon da historikoki barazki kontserben tradizioa Nafarroako inguru horretan, eta bereziki San Adrianen: "Ezinezkoa da San Adrianen historia bertako kontserba industriarekin lotu gabe ulertzea. XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran eman zen garapen industrialak erabat aldatu zuen herria", azaltzen dute museoaren webgunean. Iraganaren eta orainaren arteko lotura egiteko saiakeran abiatu dute museoko proiektua.

LANTEGI ZAHARRA HISTORIAREN LEKUKO

30 kontserba enpresa baino gehiago izan zituen garai batean San Adrian herriak eta horietatik bost besterik ez dira gelditzen gaur egun. 1888an 841 biztanle bizi baziren bertan, mende batean boskoiztu egin zen biztanle kopurua, eta igoera hori zuzenean dago lotuta kontserben industriara iritsitako langileekin. Herrian txertatutako jarduera horren historia bildu nahi izan du El Navarrico barazki kontserben enpresak museoarekin.

Emakumeek jarduera horretan izan duten garrantziari aitortza ere egin nahi izan diote proiektuaren bultzatzaileek. Izan ere, historikoki emakumeak izan dira nagusiki kontserbak egiten, eraldatzen eta merkaturatzen aritu direnak, nahiz eta jarduera profesionalizatzean asko fabriketatik kanpo gelditu.

300 METRO KOADROKO GUNE ZABALA

300 metro koadroko espazioa hartzen du lantegi zaharrean kokatutako museoak, eta lau gunetan dago banatuta. Lehenengo gunean kontserbagintzari lotutako erreminta eta makina zaharrak daude erakusgai, eta jarduera horrek urteetan izan duen bilakaera azaltzen da. Bigarrena ikus-entzunezkoen gunea da: kontserben industriaren historia errepasatzen duen dokumentala proiektatzen da bertan. Hirugarrenean gune interaktiboa dago kokatuta, eta kontserben elaborazio prozesua azaltzen da tablet, errealitate birtualeko betaurreko eta bestelako teknologien bidez. Azkenik, kontserbak etxera eraman nahi dituzten bisitarientzako denda txiki bat ere badu museoak.

Astelehen eta igandeetan izan ezik, egunero irekitzen dizkie ateak bisitariei kontseben fabrika zaharrak, eta hileroko azken ostegunetan ate irekiak egiten dituzte, sarrera doakoa jarriz. Nafarroa hegoaldeko barazkigintzaren historiara hurbiltzeko aukera ezin hobea. ●

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1975eko azaroaren 1a

KOLDO IZAGIRRE

Ez dugu urtealdi oso baten erakutsia egiten ahal urte bakarra hartuz. Baina badira muga bihurtzen diren uneak. Zer nobedade geneuzkan Franco hil zen urte hartan, Durangon? Antton Olariagak edertutako Saioka eskola liburuak eta Lizardi, Lete eta Gandiagaren letrak musikatuz osatutako *Antton Valverde* LPa, Mikel Zarateren Alegi mingotsak eta Txomin Artolaren *Olaxta*, *Jon Miranderen idazlan hautatuak* eta Gorka Knörren *Nik nahi dudana*, Gordailuren *Haurren Biblia* eta Artze anaien *Txalaparta'75*, Manuel Lasarteren *Gordean neuzkanak* eta Anje Dualderen eta Mixel Ducauren *Errobi*, Mikel Arregiren *Hego haizearen konpasean* eta Benito Lertxundiren *Eta maita herria üken dezadan plazera*, Ikastola Elkartearen *Kristau Ikasbidea* eta Oskorriren *Aita-semeak/Gosetea* singlea, Jose Mari Satrustegiren *Euskaldunen seksu bideak* eta Beñat Axeariren *Euskal Herria 1975*... Hezkuntza eredu desberdinak talkan, Zuberoako kantuak Euskal Herriaren ondare modernoa bihurtzen, euskararen hitzak adiera berriz betetzen, apaizak etnomaitaketa asmatzen, irakurleak autore maldito bat deskubritzen, malenkonia esistentzialak, rockaren indarra, poemak kantagarri.

Francoren heriotzak bihurtuko zuen muga urte hura, baina azaroaren aurrenean bizirik zeukan oraindik bere suhiak zuzentzen zuen mediku taldeak. Durangon, urte hartan, Gabriel Arestiren heriotza zebilen ahotan. Amatiñok *Zeruko Argia*-n sortu zuen *Zenbat Gara* atalean esan bezala, Gabriel Arestik ideiak zeuzkan, beste edozenbat gauzaren artean Euskal Herrian falta zaiguna. Ideiak hitz eta kantu eta eztabaida bihurtzeko talentua ere bazeukan Arestik. Ideiez gain euskalduna izatearen lotsa eta harrotasuna, biak bat. ●

ARGIAK 100 URTE

2008AN SORTU ZEN IAMETZA ENPRESA

Hiruak bat: Komunikazioa, diseinua eta garapen teknologikoa

MIREN OSA GALDONA

2007an hezur-mamitu eta 2008an eratu zen ofizialki Iametza. "Ametzagaiña taldeko ARGIA, Antza eta Adurrek indarrak batuz askoz aukera gehiago genituela pentsatu genuen". Eli Pomboren hitzak dira. 2009ko irailaz geroztik bera da Iametzako kudeatzailea eta lehen pertsonan bizi izan du enpresaren bilakaera.

ARGIAk komunikazioan, Antzak diseinuan eta Adurrek garapen teknologikoan urte luzeetako esperientzia zutenez, pentsatu zuten hiru enpresa hauen artean Iametza sortuz gero, bezeroei zerbitzu osoa eta espezializatua emateko aukera izango zuela Iametzak.

BEZEROEN BEHARRETARA EGOKITZEKO GAITASUNA

Teknologian, komunikazioan eta diseinu lanetan zentratzen da enpresaren jarduna. Hamabi lagunek osatzen dute lantaldea, esperientzia eta freskotasunaren arteko koktela osatuz: hastapeneko taldetik gutxi batzuek baino ez dute jarraitzen bertan, eta azken urteetan jende gaztea sartu da, ideia berriak txertatuz.

Lehen urteetan hiru ildo nagusitan zentratu zen Iametzaren jarduna: udalentzat egindako euskarari buruzko atariak, tokian tokiko toponimoa ardatz zuten webguneak eta *Herria Ezagutzen*, irakaskuntzara bideratutako proiektu hezitzailea. Dezente aldatu dira bezeroen beharrak ordutik, besteak beste, IKT teknologiak eta komunikazio tresnak asko demokratizatu baitira azken urteetan.

Egun bestelako lan ildoetan jartzen dituzte gogoak, hasierako balio eta indar berekin: burujabetza teknologikoa, hizkuntza teknologiak, datu base dokumentalak garatzea eta neurrira egindako komunikazio zerbitzuak dira ardatzik nabarmenenak, baina Iametzaren ezaugarri nagusia edozeinen beharretara egokitzeko gaitasuna da: euskararen arnasguneak prestigiatzeko sortutako *Arnasa Gara* komunikazio planetik hasi eta ARGIAren webgunea garatu eta sostengu teknikoa emateraino.

Azken asteotan iametza.eus webgunea berritu du, baita enpresaren irudia eta leloa ere. Deskolonizatu nahi badugu, arlo guztietan burujabe izan behar garela argi izan behar dugu. Iametza bide horretan doa: loturak sortuz, sareak eraikiz eta, batez ere, behar berrietara egokituz. ●

EUSKARABILDUA JARDUNALDIETAN LIZENTZIA LIBREEI BURUZKO HITZALDIA

Informazioa ez al da ba zabaltzeko?

DANI BLANCO

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gutxi izango dira kontra egingo dizutenak planteatzen diezunean edukia besteen eskura, libre uztearen teoria. Teorian geratzen den bitartean, behintzat. Utopian. Baina zer gertatzen da praktikan jartzen hasten garenean? Hor hasten dira agertzen aurreneko "baina hau nik egin dut eta nirea da, zergatik eman besteei erabiltzeko eskubidea?", bezalako esaldiak. Teoria eta praktika hauek euskal komunikabideetako lizentzietara ekarri eta gaiaz ARGIAren ikuspegitik hitz egin zuten urriaren 24an Iametzak antolatutako *Euskarabildua* jardunaldietan Axier Lopez eta Xabier Letonak, *Elkarrekin eta libre bagoaz. ARGIA eta CC lizentziak* hitzaldian.

Sarrera moduan aipatu zituzten software librearen hastapenak eta honi lotu zioten lizentzia eta kultura librearen haria. Nola bizi du ARGIA bezalako euskal hedabide batek bere eduki guztiak CC by-sa lizentziapean denen eskura jartzea? Eta hizkuntza txiki eta gutxitu batean funtzionatu eta komunikatzen diren beste hedabideek nola bizi dute hau? Zertan da lizentzien kontuan euskal hedabideen komunitatea? Bi jarrera nagusi bereizi zituzten: batzuen ustez, edukiak libre partekatu behar dira, edukiak osorik, ahalik eta gehien hobeto, horrek indartu egiten gaituelako, bai euskal hedabideok oro har, baita hedabide bakoitza ere. Besteen ustez, medio handiago batek txikiaren edukia hartzen badu, txikiaren zabalkundea mugatzen du, besteak beste, sareko posizionamendu kontuengatik edo handiak itzal handiagoa duelako; horregatik, eskatzen da edukiaren hasiera hartzea, baina gero irakurtzen jarraitu nahi izatekotan edukia landu duen hedabidera bideratzea.

Baina ez al dugu ba elkartuta indarra hartzen? Hala ulertzen du, behintzat, ARGIAk. Komunitatean sinesten du, eta entenditzen du komunitateko informazio eta edukiak geroz eta mugimendu handiagoa izan, talde hori bera sendotzen duela, agenda informatibo bat markatzen laguntzen duela, nazio eraikuntzarako beste giltza bat gehiago dela.

Eta azpimarratu zutenez, duela hiru urte martxan jarri zen ARGIAren harpidetza eredua ez dago ulertzerik lizentzia eta kultura librea konprenitu gabe.

Gai potoloa, euskal hedabideen komunitatean akaso eztabaida sakonagoa izan beharko lukeena, eta erpin asko dituena. Tamalez *Euskarabildua* jardunaldietan botatako puntu guztiak ezin izan ditut hemen bildu, baina izango duzue aukerarik webgunean errepikapena ikusteko. ●

ARGIA Sarien hautagai proposamenak bidali

Urtero bezala Argia Sariak urtarrilaren bukaeran banatuko ditugu eta pozik jasoko ditugu zuen proposamenak. Gogoratu bost sari ditugula: Irratia saria, Ikus-entzunezko saria, Prentsa saria, Internet saria, Sustapen saria eta Merezimendu saria. Atal horietan saria merezi duen pertsona, talde edo egitasmorik gogoan baduzu bidali faborez helbide honetara:

oirureta@argia.eus

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

BIDEA URRATU DUTEN BERTSOAK
56 orrialdeko bertso sorta

Harold Bloom hil da kanon literarioari buruzko eztabaida ez

Erantzun zaila duten galderak: zeren arabera esan daiteke liburu bat ona den edo ez? Nola ezartzen da kalitatezko literaturaren labela? Testuei bakarrik begiratu behar zaie ala testuinguruari ere bai? Obra garrantzitsua zein den eta zein ez erabakitzeko orduan, zer pisu du gizartearen eraginak? Goi mailako literaturatzat hartu izan diren liburuak kanonaren parte direla esan ohi da. Aurtengo urrian hil da Mendebaldeko literaturaren kanona ezartzeko saiakera garrantzitsuena egin zuen kritikaria: Harold Bloom. Heriotza horren uberan, aspaldikoa bezain aktuala den eztabaidari heldu diogu.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Harold Bloom literatur kritikaria urriaren 14an hil da, Yale unibertsitatetik gertu dagoen ospitale batean. Katedratikoa zen unibertsitate horretan eta sei hamarkada baino gehiago eskaini zizkion irakaskuntzari. 89 urterekin, osasun oso txarrarekin ere, eskolak ematen jarraitu zuen eta hain ziren preziatuak haren irakaspenak, klasera joateko gorputzaldirik ez zeukanean ikasleak haren etxera joan ahal izateko autobusak jarri zituela unibertsitateak. Hil baino lau egun lehenago eman zuen azkenekoa, haren emazteak heriotzaren berri ematean *The New York Times* egunkariari esan zionez.

Hil ondoren ia aho batez txalotu dute mundu osoan kritikari estatubatuarrak egindako ekarpena, baina haren ibilbidean alde ilunak ere badira: 1990ean *GQ* aldizkarian publikatutako artikulu ba-

tek salatu zuen emakumezko ikasleekin "harremanak" izaten zituela. "Uste dut iraganeko kontua dela. Gorroto dut esatea, baina gauza horietaz harro agertu zen, beraz ez zen urte askoan oso sekretupeko gauza izan", azaldu zuen handik lau urtera R. W. B. Lewisek, Bloomen lagun eta biografoak. Harreman horietako batzuk behintzat, ordea, ikasleen onarpenik gabekoak izan zirela pentsatzeko arrazoiak ematen ditu 2004an Naomi Wolf idazleak kontatutakoak: 1983an, ikaslea zela, Bloomek eskua izterraren barrualdean jarri ziola salatu zuen artikulu batean –irakasleak ukatu egin zuen salaketa hori–.

Ez da Bloom inguratu duen polemika bakarra, baina bizitzan zehar eragin zituen eztabaida gehienak esparru literariokoak dira. Eta horietatik ez gutxi, 1994an argitaratu zuen *Kanon mendebaldarra* liburuari zor zaizkio. Lan horrek mundu osoko literatur kritikari eta zaleen artean eragin zuen debatea gaur egun zertan den jakin nahi izan dugu, horretarako bi literatur kritikari eta EHUko irakasleri iritzia eskatuz. Bloom deskribatzeko eskatu diogunean, Beñat Sarasolak azaldu du Mendebaldeko kanon literarioaren defendatzaile sutsua izateagatik zela ezagunena, "nahiz eta bere ibilbidean hori baino askoz gehiago egin duen".

> **"Hil ondoren ia aho batez txalotu dute mundu osoan kritikari estatubatuarrak egindako ekarpena, baina haren ibilbidean alde ilunak ere badira"**

Akademiatik harago ere eragina izan zuen kritikari estatubatuarrak. Iratxe Retolazaren ustez, gaur Bloom publiko orokorrarentzat ere ezaguna bada hiru arrazoi nagusirengatik da: erabili zuen diskurtso-motak irakurle ez hain trebatuetara heltzeko gaitasuna izan zuelako; kultur joera eta ikuspegien ugaritzeak ekarri zuelako gizartearen sektore bat erreferente bila hastea, aniztasunak noraeza zekarrelakoan; eta arrazoi politikoengatik: "Azken batean literatura ulertzeko modu eta ikuspegi baten ikur eta zaindari bilakatu zen Bloom, mendebaldeko literatur kanona defendatzearekin batera, mendebaldeko balioen defendatzaile ere bilakatu baitzen. Hain zuzen ere, balio horietan erroturik zeuden (eta daude) botere-egitura gehienak".

GAUR-GAURKO EZTABAIDA

Kanon mendebaldarra-k argitaratu zenetik 25 urtera gaurkotasunik ba ote duen galdetuta, Retolazak adierazi du "zoritxarrez" baduela, "oraindik ere eragin handikoa delako". Bere ustez, saiakera horretan proposaturiko literatur ikuspegia "ezbairik gabe eta ñabardurarik gabe" gailentzen da literatur diskurtso askotan, nahiz eta ikuspegi hori, bere aburuz, oso eztabaidagarria den: "Liburu horretan balio estetikoak irizpide neutraltzat hartzen dira, eta kalitate literarioa irizpide unibertsaltzat hartzen da. Bloomek kalitate literarioa sozializaziotik kanpo ulertzen zuen. Euskal literaturan ikuspegi hori erroturik dago literatur eragile batzuen artean. Ez da kontuan hartzen irizpide literario oro ideologikoa eta soziala dela, literatura hitzarmen soziala baita".

Sarasolaren esanetan, "literaturarekiko interesak jarraitzen duen heinean, liburu horrek ez du gaurkotasunik galduko". Bloomek obra horretan erakutsitako autoreen eta obren ezagutza handia azpimarratu ditu, "zeinen ezagutza sakona gainera, bertikalki (autore bakoitzarekiko) zein horizontalki (autoreen arteko harremanean)". Liburua oso mendebaldarra dela onartuta, galdera bat jarri du mahai gainean: "Nor da gai tradizio horren barruko hainbeste lerrotan arakatzeko?". "Besterik da liburuaren hitzaurre famatua", gaineratu du. "Susmoa dut zaharrak jo duela testu hori. Sakonean dagoen literaturaren autonomiaren ideiarekin nahiko bat nator, baina aski modu zipotzean egin zuen defentsa hori".

Izan ere, Bloomek "erresuminaren eskola" etiketapean sartuz gaitzetsi zituen kritika marxista, feministe, teoria kritikoa, ikasketa afroamerikarrak edo postestruktularismoa, besteak beste, haren ustez ikuspegi horietatik egindako kritikek ekar zezaketelako balio literario apaleko lanak sartzea irakurri beharreko literatur lanen artean, irizpide politikoak literarioen aurretik jarriz. Sarasolaren ustez, beste kritikari batzuk erridikulizatzen saiatzeko balio izan zuen etiketa horrek. Ez zuen lortu ordea: "Nola ukatu, adibidez, Raymond Williams, Edward Said edo Susan Sontagen lan kritiko bikaina? Erresuminaren saldokoak dira? Eztabaida estupidoa da", adierazi du.

Hori bai, Retolazaren ustez, aspektu politikoak lehenesten dituen kritika-ildoek indarra hartu dute gizartean. "Batzuetan testu literarioen interpretazioak batez ere gizarte-diskurtsoen ikuspegi hutsetik egiten dira. Halakoak interesgarri eta beharrezko izan daitezke une batzuetan (kasuan kasu aztertu behar), baina, garrantzitsua da literatur esparrutik eta literatur logikatik garatzea joera kritiko feministak, postkolonialistak, marxistak, ekologistak eta abar". Eta alde horretatik, uste du joera horietatik garatutako metodologiak, kontzeptuak eta tresnak gutxi ezagutzen direla.

OIER ARANTZABAL

> **Eztabaida kritiko zabal baten ordez, gaur egun daukaguna da eztabaidarik eza eta 'berdin du kale edo bale' politika bat. Egintza burutuen kanon bat ekartzen du horrek"**
>
> Beñat Sarasola

EUSKAL LITERATURAREN KANONA(K)

Gaia euskal literaturara ekartzean ere, eztabaidak eragiten ditu. Eta akaso, gabezia asko agerian geratzen dira. 2002an *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburua argitaratu zen –Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandia ziren liburuko protagonistak–, eta zenbaitek ariketa kanonizatzaile baten traza hartu genion. Liburuko idazle guztiak gizonezkoak ziren. Handik lau urtera, emakume idazlez osaturiko antzeko liburua publikatu zuen Ana Urkizak –*Zortzi unibertso, zortzi idazle*: Arantxa Urretabizkaia, Mariasun Landa, Aurelia Arkotxa, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe eta Yolanda Arrietari egindako elkarrizketak jaso zituen–. Kritikarien lanak izan ez arren, elkarrizketa-liburuak baizik, publiko orokorrarentzat erreferentzia argi batzuk ematen zituzten, debaterako aukera zabalduz: zergatik idazle hauek nabarmendu eta beste batzuk ez?

Alegia, nola osatu beharko litzateke euskal literaturaren kanona? Badago halakorik? Egon beharko luke? "Kontu honetan niretzat interesgarriena eztabaida da, eztabaida kritikoa literatur eta kultur eredu, forma, molde eta abarri buruz. Kontua da hemen ez dagoela apenas halakorik. Kanona dibertsifikatu edo ez, hori ez da aurretiaz planifikatzen den zerbait, ezin da aditu talde bat edo kluster bat edo dena delako bat bildu erabakitzeko: diseinatu dezagun kanon perfektu bat. Zenbat eta eztabaida kritikoa zabalagoa izan, orduan eta kanon xehe, konplexu eta aberatsagoak izango ditugu. Baina horren ordez daukaguna da literatur eztabaida kritikorik eza eta 'berdin du kale edo bale' politika bat. Begiratzea besterik ez dago zeintzuk dauden instantzia kanonizatzaile nagusietako batzuetan; kasu batzuetan komikoa da kasik. Errazena da paso egitea, eta ondorioz, orain daukaguna dugu, aukera guztietan kaskarrena: egintza burutuen kanon bat", adierazi du Sarasolak.

Retolazaren ustez, "sekula ez dago kanon bakarra, ezta kanonizatze-prozesu bakar bat ere, hainbat geruzatan eta diskurtsotan eraikitzen baitira kanonak, eta garai jakin batean literatur eragileen arteko inolako arrakalarik gabeko adostasuna egotea ezinezko baita". Beraz, hartu-emanean jarri du azpimarra: "Literatur errepertorio eta ereduen inguruko elkarrizketetan, negoziazioetan eta igurtzietan definitzen dira kanonak. Kanonizatze-prozesuak tentsio etengabean bizi dira. Uste dut askoz ere interesgarriagoa litzatekeela kanonez jardutea, edo kanonizatze-adarrez jardutea, kanon hertsi eta arauemaileaz baino. Azken batean, edozein garaitan literatur eragileen artean literatura ulertzeko hainbat modu izaten dira, kontrajarri ere egin daitezkeenak, eta literatur ikuspegi horietariko bakoitzean gailentzen da kultur eredu jakin bat, mundu ikuske-

ra jakin bat. Interesgarriena ikuspegi-geruza horien guztien berri eman lezaketen kanon geruzatuak irudikatu ahal izateko bideak topatzea litzateke, elkarrizketa zein tentsio horiek ikusgarri egin ahal izateko (eta *literatura on / txar* logika hierarkizatzaileari iskin egiteko)".

DANI BLANCO

DENBORA KONTUA

Baina horretarako beharrezkoak liratekeen eztabaidak nekez gertatzen dira euskaraz. Sarasolak horren kausetako bat seinalatu du: kritikari gehienak akademia-sistemaren estutasunen menpe dabiltzala. "Zenbat literatur saiakera argitaratu dira azkeneko hamarkadan? Zenbat monografia-artikulu akademiko eta abar? Bloomengandik ikas dezakegun zerbait da literatur ikerketa ez dela kontu tekniko bat, ezin dela literatura ikertu biokimika ikertzen den bezala, baina justu kontrako norabidean ari gara. Maite ditut bizitza guztian literatura irakurtzen pasa eta irakurketa sakon eta zabal horietatik idazten duten kritikariak, horiengandik ikasten da literatura maitatzen, baina egungo sistema unibertsitarioan hori penalizatu egiten da".

> **"Askoz interesgarriagoa litzateke kanonez jardutea edo kanonizatze-adarrez, kanon hertsi eta arauemaileaz baino"**
>
> Iratxe Retolaza

Retolazak beste ahulgune bat ere nabarmendu du: "Garaikidetasuna dela literaturaz jarduteko irizpide nagusia, eta hortaz, dinamika historikoak aztertzeko joera gutxitu dela literatur-kritikarien artean. Ondorioz, kanonizatze-prozesu dinamikoak sortzeko tresna gutxiago sortu dira, eta idazle kanoniko gutxi batzuen inguruko diskurtsoak edo lehiak nagusitu dira kritika-diskurtsoetan (esate baterako, Joseba Gabilondok Kirmen Uriberen eta Ramon Saizarbitoriaren autoretzak alderatuz egin zuen saioa, *New York-Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*)".

Denborak ere badauka, bistan denez, kanonaren auzian zeresanik: kritikarien denbora faltarengatik, batetik; eta azkenaldian argitaratutako liburuak lehenesteak perspektiba tenporal zabalago batetik begiratuta ikusiko liratekeen autore eta obra asko behar bezala ez baloratzea ekar dezakeelako, bestetik. Harold Bloomen heriotza seinale bat izan da, akaso: hiper-azeleratutako garai hauek eztabaida sinplifikatua eskatzen dute, hemengoa eta oraingoa, "bai" ala "ez" esatekoa; erreportaje honetan elkarrizketatu ditugun kritikariek premiazkotzat jotzen duten debate sakon eta aberatsaren antipodetan dagoen zerbait, alegia. ●



LIBURUA

Poemak idazten hasi

ANTOLOGIA
JOHN BERGER

ITZULTZAILEA: IÑIGO ROQUE EGUZKITZA
SUSA, 2019
MUNDUKO POESIA KAIERAK

IGOR ESTANKONA

Eta pintore bukatu. Pintura da John Bergerrentzat (Londres, 1926-Paris, 2017) poesiaren konplikazio bat. Agian hortik datozkio zuria zuriaren gainean marrazten duten poemak, kristala eta izotza gainjartzen dituztenak. Beñat Sarasolak Munduko Poesia Kaieren hogeita hamabigarrena den honen hitzaurrean ederto dio munduari begiratzeko modu berezi bat eskeini digula idazle honek, pintore honek. *Ways of Seeing*-en egileak marraztu, kontakizunak kontatu zein artearen kritika egiten baititu unibertsoaren puntu urrun batetik, zeina den guztia ikusten den leku hori, dena ulertu dezakegun unea: "Laukizuzen batekin hasten da/ mahai batekin demagun/ gainean aizkorak/ eta glaziarrak/ eta zezen zuri baten kaskezurra/ elurretan galdua". Berak esana da poetak hizkuntza paratzen duela denboratik kanpo edo, "zehazkiago, poeta hizkuntzara hurreratzen da leku bat balitz legez, elkargune bat, non denborak ez baitu xederik, non denbora bera geratzen den janda eta dominaturik".

Abstrakzio jori batekoak, pieza guztiak iradokitzaileak dira koloreengatik eta ñabardurengatik, ez hainbeste esanahi literalagatik. Berba apur batzuen bitartez asko diote, labur-labur esanda uzten dute dena esanda: "Belauniko/ lapikoari orekan eusteko/ sukaldea ama/ zapia burua/ gogoan zaituztet/ eta gogora deitzen// Zure etxe osteko mitxoletak/ barreiaturik daude nire hodeietan".

Behatzaile aparta eta detaileetan errebelazio gorenenak aurkitu zalea, antologia honetan galdu zaitezke sinpletasunaren puruz. Maiz poesiak ez du apaingarri astunik behar, ezpada askatasun apur bat, eta forma libre uztea. Horrela lortzen du Bergerrek arintasun sano pertsonal bat, kontakizunarena edo are zirriborroarena. Poetarentzat ez daukate garrantzia handirik fikzio, saiakera, antzerki, narratiba eta halako etiketek, kategoria horien gainetik idazten du-eta, istorioak harilkatuz, sentsazioak kordatuz: "Orga zuri huts bat/ zaldi urdin batek tiratua/ tranbia baten atzetik// elurra betetzen ari da orga". Esperientziatik abiaturik emozio unibertsaletara egiten jakin zuen idazlea, John Berger itsasoa bezain sakona da, bideko putzu azal-azal bat dirudiena. ●



KONTZERTUA

Kantu ederrak, disko dotorea

Kaskezur taldea 2004an sortu zen Baztanen.

IHES DOAZ ANIMALIAK
KASKEZUR
MUKURU, 2019

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Kaskezur taldearen lan berria oso txalotua eta goraipatua izaten ari da, eta ez da harritzekoa. Taldeak berezkoa duen doinuan sakondu du, *Azpisugeak* (Mukuru, 2017) aurreko lanaren bidetik, eta bere diskorik landuena eta osoena egin duela esan daiteke. Kanta ederrak dituen disko dotorea.

Taldekidek oso gustu ona erakusten dute kantak sortzeko eta jotzeko garaian, eta grina, adore, leuntasun eta fintasun handiarekin aritzen dira. Rock, noise-rock eta power-pop kutsuko doinuak egiten dituzte. Melodia politak, pasarte ilunak, sutsuak, lasaiagoak eta korapilatsuak, askotariko ñabardurak, gitarren arteko jolasak. Psikodelia eta esperimentazioa. Doinuak eta hitzak: "Bat batean lurra sabai bihurtu zen eta gauzak gorantz erortzen hasi ziren *(Gora),* "Hitz egingo dute Askatasunaz. Zokoetan klanak adi sasi artean. Ihes egingo dute animaliak. Libre izateko bakarrik gauaz" *(Animaliak),* "Bide bat marraztu. Librea, naturala, jarraia ta ibiltaria. Fruta jan, fruta jan, fruta jan, fruta jan" *(Buztinezkoa).*

Sonic Youth, The Cure, Dinosaur Jr., Sebadoh, Superchunk, Fugazi eta beste talde batzuen ukituak antzeman daitezke Kaskezurren kantetan, baina taldekideek ederki jakin dute eraginak bereganatzen, beren doinua sortzeko, beren giroa, Kaskezur doinua.

Imanol Zubieta (baxua), Mikel Santxez (bateria), Ion Minde (gitarra eta ahotsak) eta Iñigo Belzunegi (gitarra eta ahotsak) aritzen dira Kaskezur taldean. Haien artean sortu dituzte diskoko kantak, bat izan ezik, *Euria* kanta *Euria ari du*-ren bertsio librea delako (Joseba Irazokik konposatua da musika eta Dani Irazokik idatziak dira hitzak). Grabazio saioetan, Joseba Irazoki bera gitarrarekin aritu da, Ibai Gogortzak ere gitarra jo du, eta Miren Narbaizak kantatu egin du.

Grabazioaz Iñigo Irazoki teknikaria arduratu da, ekoizpenaz Ibai Gogortza bera eta masterizazioaz Jonan Ordorika.

Kaskezur taldea Baztangoa (Nafarroa) da, 2004an sortu zen, eta bost disko ditu kaleratuak. Oso lan onak. Orain, hoberena, disko berriko kantak entzun eta taldea jendaurreko emanaldi batean ikustea da, eta gertutik sentitzea taldeak bere kanten bidez transmititzen duen zirrara, sentsazioak, sentipenak, emozioak. ●

Sold Out

XALBA RAMIREZ

Donostiako Gros auzoan ekimen ederra abiatu zuten orain bi urte: Marruma Kulturalak. Izen bereko elkartean antolatzen dira –hitzaldi eta abarrez gain– kontzertu elkarrizketatuak hileko azken igandean. Saioak akustikoak dira eta zuzenean entzun dezakezu artista, bitartekaririk gabe. Grabatu egiten dira gainera, eta egun gutxitara podcast formatuan sareratzen dute, elkarrizketa eta guzti. Hilabeteko hirugarren igandea den arren, salbuespen ederra eman digu Erik Berganza Abereh-k.

Gertutasunak kantuez eta artistaz gozatzeko aukera ematen du. Distortsio eta frenetikotasunetik intimitatera jauzia zergatik eta zertarako eman duen entzutea kantuak bezain interesgarri egiten da. Izan ere, Berganza balmasedarrak hardcorearekin lotutako ibilbide gozoa du bizkarrean; Estricalla, Hartzak Blues Band, Odolaz Blai edo Hil Aiari taldeetan aritu da militatzen.

Kantu geldoak dira, konplexutasun harmoniko gehiegirik gabeak eta soilak konponketetan. Atmosfera sortzea bilatzen duela dirudi, letrak melodietara moldatuz eta zatikatuz, arnasa hartzeko denbora hartuz, behar denean. Eta ez da tonutik aterako. Lasai aurkeztu ditu bere zazpi kantuak, denbora eskainiz gitarrari eta ahotsari, gora eginez behar denetan, baina sobera apurtu gabe.

Britainiar tradizioan, akademian hitz egiten eta aurkezpenak pulamentuz egiten erakusten omen dute. Euskaldunoi ez, antza. Eta saio hauetan artista gehienak aritzen dira barkamenak eskatzen zaleei, ez dakitelako zer erantzun edo ohituta ez daudelako edo lotsa dutelako. Baina artistak konplizitate beroa sortzen du kantuekin bezain beste bere erantzun eta gogoetekin. Eta horri esker irri bat baino gehiago ikusten da Marruma Kulturaletan, saio guztiak berezi bihurtuz.

Berganzak bere kantu borobilenak aukeratu ditu saiorako eta goxo eta pentsakor jarri gaitu: "Zaila da azaltzea zergatik, baina bai, sarri mintzen dut". Letra ilunak "iraganari begira gehienak", baina ez bereziki ezkorrak. Berak ere aitortu du batzuetan ez dakiela zergatik idazten dituen horrelakoak. Eta adi honi, izan ere, ez dago beti plan bat kantuak sortzeko. Kantuak askotan iritsi egiten dira, eta "ez duzu zertan ados egon zure kantuekin", lagun handi batek zioen bezala.

David Bazan-en *Options* kantuarekin gogoratu naiz *Akordatzen* jo duenean, eta sorpresaz jarraian bere *Strange Negotiations* itzela eskaini digu –neronek iratzargailu izan dut kantua, eta oraindik ez nau aspertzen–. Eta bai, gitarrak Eddie Vedder-en antzera eta melodiak Bazanen antzera josten ditu, arimaz beteta.

Saio intimo eta txalogarria izan den arren, hogei lagun baino gehiago ezin zenbatu elkartean. Duela aste batzuk, Physis Versus Nomos-en kontzertua izan genuen Donostiako Kafe Antzokian, eta lagun bat baino gehiago ibili zen galdezka, "aurre salmentarik ez al dago? Baina sarrerarik gabe ez gara geratuko ezta?". Ezin harridurari eutsi. Nola espero dezake inork horrelakorik gurea bezalakoa den talde txiki batengatik? Erantzuna ez da horren zaila.

Kontzertu asko antolatzen diren arren, gutxi dira hedabideetan eta sare sozial digitaletan partekatzen direnak, eta nekatu arte partekatu ere –eskerrak storie-ek 24 ordu irauten duten soilik–. Eta ikusten ditugunak beti dira La Polla Recordsekoak bi aldiz betetzen BEC-a, eta Berri Txarrakek bi aldiz Navarra Arena eta Gatibuk hau eta Hertzainakek bestea. Euskal Herriko eszena ordea askoz ere handiagoa da. *Sold out* kartela jartzea salbuespena izateari uzteko, kontzertu gehiagotara joan beharko genuke. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak



Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3					7			
	9			4	3			
7	6	2	5					
		3			6	1		
	7		4		5		9	
		1	3			7		
					4	6	2	9
			1	3			5	
			2					3

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Errana
2. Sagardoa ekoizteko fruitu
3. Adineko gizona
4. Ugaria
5. Dudarik gabe, benetan

EBAZPENAK

5X5:
1. ESANA
2. SAGAR
3. AGURE
4. NAROA
5. AREAN

3	1	4	9	2	7	5	8	6
8	9	5	6	4	3	2	7	1
7	6	2	5	8	1	9	3	4
9	5	3	8	7	6	1	4	2
2	7	6	4	1	5	3	9	8
4	8	1	3	9	2	7	6	5
1	3	8	7	5	4	6	2	9
6	2	9	1	3	8	4	5	7
5	4	7	2	6	9	8	1	3

	Z		B							U		A		K
J	U	L	E	N					T	X	A	N	K	A
	T	O	R	A						U	R	K	O	R
D	A		T	H		B		Z	E	B	E	R	I	
	B	I	S	I	T	A	T	U		U	R	R	E	
B	E	G	O		E	R	I	K	O	R		O	S	
		I	L	K	I		T	A	N	U	A	K		
B	A	T	A	I	L	O	I		G	A	R	O	A	
	M	A	R	R	A	Z	K	I	A		D	I	K	
D	A	L	I	A		P	O	B	R	E	A		A	
	I	D	A	T	Z	I		I	R	I	T	S	I	
J	A	I		S	U	N	T	S	I	E	Z	I	N	

Aina Clotet

ZILARREZKO BIZNAGA

"Fikzioan, normalean, haurdun dauden emakumeek haurdunaldiaz hitz egiten dute bakarrik"

Filla d'algú (*Norbaiten alaba*, euskaraz) film katalanean egindako interpretazioagatik Malagako festibalean Zilarrezko Biznaga saria jaso zuen Aina Clotet aktoreak (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1982). Antzerkigintzan azken urteetan nagusitu den olatu feministaren erreferenteetako bat da.

SAIOA BALEZTENA **JORDI BORRÀS**

Aktorea zara baina ikus-entzunezko ikasketak egin zenituen. Zergatik?
Hamabi urterekin, kasualitatez, *casting* batean onartu ondoren, kapitulu gutxiko telesaila izango zena lau urteko telesailean bilakatu zen. Gaztetxoa nintzen, eta telesailak eragindako famaren ondorioz, zinemagintza uztea erabaki nuen, ikasketetan murgildu eta nire etorkizuna erabakitzeko. Baina aurki ikusi nuen antzerkia bizitza desberdinak bizitzeko bizimodua zela. 21 urterekin nire lehen pelikula egin nuen. Harro nago uste osoz eta ikasketak amaituta aktore izan nahi nuela erabakitzeko gai izan nintzelako. Ikasketak garrantzitsuak ziren niretzat, antzerkigintza ogibide oso zaila da eta alternatibak izatea garrantzitsua zen.

Aktore onenari Zilarrezko Biznaga saria jaso duzu *Filla d'algú* filmagatik. Zein garrantzia du sariak?
Tira, sariek ez gaituzte aldatzen, egindako lanari ikusgarritasuna emateko aukera paregabea dira, eta hori garrantzitsua da niretzat. Bide onetik zoazen seinalea ere badira. Baina ez zaie behar baino garrantzia gehiagorik eman behar.

Haurdunaldia ikusezina dela erran izan duzu betidanik, film honetan bere aitaren defentsa egin behar duen 30 urteko abokatu haurdun bat interpretatu duzu.
Proposamena jaso nuenean bereziki interesgarria iruditu zitzaidan horregatik, haurdunaldiak fikzioan gutxitan duen ikuspegi bat ematen baitu *Filla d'algú* filmak. Fikzioan, normalean, haurdun dauden emakumeek haurdunaldiaz hitz egiten dute bakarrik; kasu honetan nire pertsonaia, Eli, haurdun dago, baina traman ez da haurdunaldia bere horretan jorratzen. Izan ere, haurdunaldia ez da gaixotasun bat, eta emakumeok bizitza normala egiten dugu haurdun gaudenean. Film honek, aita lur jota dagoen une batean, lehen aldiz ama izango den emakume baten ahalduntzea irudikatzen du.

ZORITIK BOKAZIORA

"Hamabi urte nituenean hasi nintzen aktore lanetan, zoriz. Mediku familia batean jaio nintzen, aita eta ama dira medikuak, eta aitari TV3n [Kataluniako telebista publikoa] IHESAren harira egin zioten elkarrizketa zientifiko batera lagundu genion nebak –aktorea– eta nik. Une horretan hasi ziren telebistako fikziozko telesailak ekoizten, eta bertan gomendatu ziguten *casting* batera aurkeztea. Betidanik esan izan dut zoriak ekarri ninduela antzezpenaren mundura, zoriak bokaziora eraman ninduen".

"HAURTZAINDEGIETAN GIZONEZKO IRAKASLEAK DAUDENEAN ETA ZAINTZA-LANAK EMAKUMEZKOENAK BEZAIN GIZONEZKOENAK DIREN EGUNEAN IKUSIKO DUGU BENETAKO IRAULTZA".

Bi seme-alaben ama zara. Haurdunaldiaz harago, zenbateraino da ikusezina amatasuna gaur egun?
Gure amek emakumeon eskubideen alde borrokatu zuten arren, ez dugu erreferente gehiegirik izan amatasunaren ikusgarritasunean. Nik publikoki aldarrikatu izan dut beti aktoreengan amatasunak duen errealitate ezkutua: Malagako festibalean alfonbra gorria gurutzatu nuen eta bi minutu beranduago edoskitzean murgilduta nintzen. Egoera hori kudeatzea ez da erraza, eta ezinbestekoa da emakume eta gizonak beren seme-alabekin lantokietan ikustea.

Amatasunaren eta aitatasunaren politikak hobetuz doaz poliki-poliki. Baina kontziliazioari dagokionez, zenbateraino berdindu da egoera?
Betaurrekoak aldatzen ari dira, baina sozialki, oraindik ere, oso urruti gaude berdintasunetik. Berriz diot, erreferenteak falta dira: haurtzaindegietan gizonezko irakasleak daudenean eta zaintza-lanak emakumezkoenak bezain gizonezkoenak diren egunean ikusiko dugu benetako iraultza.

Zein uste duzu dela feminismoaren osasun egoera antzerkigintzan?
Feminismoa geratzeko etorri da. Baina esango nuke feminismoaren gainditu gabeko irakasgaia amatasuna dela, nire ogibidean eta gainontzeko guztietan: emakumeon eskubideen aldarrikapena ezinbestekoa da, baina urrats bat gehiago eman behar dugu, haurdun dauden emakumeen edo ama izan direnen eskubideen alde. Are gehiago, etorkizunean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna asetzea baino garrantzitsuagoa iruditzen zait amatasunaren erronken alde lan egitea.

Feminismoaren gorakada gertatu da, mundu osoan eskuin muturreko mugimenduak goraka dauden une berean. Mehatxu bat al dira azken hauek?
Eskuin muturrak egiten duen lengoaiaren erabilera semantikoa oso arriskutsua iruditzen zait: euren feminismoa defendatzen entzuteak beldurtzen nau. Nire ustez, hezkuntza da gizarte ahaldundu bat izateko bide bakarra.

Leticia Doleraren telesail berria estreinatu berri da. Duela urtebete Kataluniako feminismoa zatikatu zen, haurdun egoteagatik Dolerak kanpoan utzi zintuelako. Zer moduz zaude?
Oso gogorra izan da, nahiz eta ni baikorra izaten saiatzen naizen. Sentimendu kontraesankorrak bizitu ditut, baina azken finean, irakaspenarekin gelditzen naiz. Hori bai, agerian gelditu da, beste behin, ama izateak profesionalki ordaina duela, baita feminismoaren aldarrikapenetan erreferente bilakatu den zuzendari batekin ere.

Uste duzu zuen gatazka hau interes mediatikoekin erabili zela?
Tira, eskuinak edozein aukera aprobetxatzen du feminismoaren kontra egiteko, eta horrek sekulako amorrua ematen dit. Baina ezinbestekoa da haurdun egoteagatik bizi ditugun gertakari hauek publiko egitea, babestuago sentituko baikara. Sistemak berezkoak dituen isiluneen kontrako bide bakarra da, halako gertakariak kontatzea. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Diputazioak eta ehiztariek akordio bat lortu dute sindikalisten populazioa kontrolpean edukitzeko

Asko hobetu dira Gipuzkoako Diputazioaren eta Ehiztarien Federazioaren arteko harremanak irailean azken hauen greba amaitu zenetik. Aste honetan elkarrekin agertu dira prentsaren aurrera, lortu duten akordio berria esplikatzera: Aldundiak postu berriak jarriko dizkie ehiztariei lantokien atarietan eta nahi adina sindikalistari tiro egiteko baimena izango dute datozen lau hilabeteetan. "Helburua sindikalisten populazioa kontrolpean edukitzea da", esplikatu du Gipuzkoako Diputazioak. "Azkenaldian gehiegi ugaritu da espezie hori eta arriskuan jartzen ari da geratzen zaizkigun patroi kapitalista apurren biziraupena". Ehiztarien Federazioaren bozeramaileak ez du ezer ulergarririk esan. "Jiiiihaaaa!" oihukatu du kameren aurrean eta airera tiroak botatzen hasi da superpuestarekin. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Sekta TB

Zer? Jada?

EUSKALDUN SOLIDARIO BATZUK BORROKARAKO PREST

Katalan eta euskal ADNak trukatzeko formula asmatu dute zientzialariek

Innobasque agentziako zientzialariek jakinarazi dute katalan eta euskal izaerak trukatzeko formula asmatu dutela. "Hemendik aurrera katalanek egingo dituzte euskaldunen gauzak, eta euskaldunek katalanenak", azaldu du Selenia Estrontzio ikerketa-buruak. "Pertsona batzuekin esperimentua egin dugu eta funtzionatzen duela egiaztatu. Begira Kataluniari; errepide mozketak, barrikadak, poliziekin ostiaka... Eta euskaldunak? Euskaldunak, lintternak hartu eta mendira. Bai bai, euskaldunak beti izan dira mendira jotzekoak, baina helburua ez zen galtzontzillo gore-tex berriak estreinatu eta ilunabarraren selfie super-politak ateratzea. Tira, agian bai, baina ulertzen didazue. Orain mendiak argitzen dituzte elkartasun internazionalistaren izenean. Begira ingurura, azkenaldian ez duzue ohi baino gafapasta eta bufanda gehiago ikusten gaztetxeetan? Ba hori, formulak funtzionatu duela. ●

Jakoba Errekondok
sinatuta jasotzeko aukera

AGENDA SALGAI!
12€

Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen agenda, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilargialdiari lotuta.

Baratzean, fruitu arboletan, lorategietan, basoan noiz zein lan egin? Erein, landatu, inausi, tratatu, uztak jaso, txertatu…

azoka.argia.eus
bizibaratzea@bizibaratzea.eus / 943 37 15 45

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus
ARGIA

AURTENGO GAIA: **Zuhaitzak**

arnasa gara

www.arnasagara.eus

Arnasguneak euskarari hauspoa ematen

Arnasguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko **Arnasa Gara** ekimenaren aurkezpen ekitaldiak egingo dira Euskal Herrian zehar abendura arte.

Kartzela serie digitalaren aurre-estreinaldia ikusteko eta aktoreekin solasteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

DATA	HERRIA
Urriak 3	**AZPEITIA**
Urriak 4	**OREXA**
Urriak 24	**ALTZO**
Urriak 25	**AJANGIZ**
Urriak 26	**LESAKA**
Urriak 26	**ITZIAR**
Azaroak 8	**DIMA**
Azaroak 9	**ZEANURI**
Azaroak 15	**ABALTZISKETA**
Azaroak 16	**LEITZA**
Azaroak 17	**ETXARRI ARANATZ**

DATA	HERRIA
Azaroak 22	**ADUNA**
Azaroak 23	**GOIZUETA**
Azaroak 23	**URNIETA** (Goiburu auzoa)
Azaroak 24	**LEKEITIO**
Azaroak 29	**ZERAIN**
Azaroak 29	**ARAMAIO**
Azaroak 30	**LEINTZ GATZAGA**
Abenduak 1	**MARKINA-XEMEIN**
Abenduak 3	**BERMEO**
Abenduak 13	**AIA**
Zehazteke	**Ipar Euskal Herrian**

HIRUKO ITUNA Euskara sustatzeko ituna
UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA
araba álava foru aldundia diputación foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA